

BAÍOLA AIZPURUA'TAÍ ABELIN'EK
SORTUA

LAGUN TXAÍ BAT

IRU EGINTZETAN ANTZERTI ITUNA



Bi pesta t'ardi
— 2,50 —

BAR´IOLA AIZPURUA´TAR´ ABELIN´EK
SOR´TUA

LAGUN TXAR´ BAT
IRU EGINTZETAN ANTZER´TI ITUNA

Bi pesta t´er´di
2,50

BAR´IOLA AIZPURUA´TAR´ ABELIN´EK
SOR´TUA

LAGUN TXAR´ BAT
IRU EGINTZETAN ANTZER´TI ITUNA

DONOSTIAN 1912^{en} UR´TEAN
«EUZKAL-ITZ JOSTALDIEN BATZAR´EAK»
EGINDAKO INDAR´-NEUR´TZEETAN AUR´ENEKO
SARIA IRABASIA

DONOSTIYAN
JOAKIN BAROJA´REN ETXEA

AUR´ENEKO EGINTZA

Irudibegiyak «Barrio Jarana'ko» ar´antzale baten etxeko sukaldia ager´tzen du. Eskuitan, aur´ena ate bat, ta bigar´en leyua.

Atzian, eskui aldean, sukaldia bere tximini gain ta guzti, ta beste aldean sar´erako atia.

Ezker´etan beste atia. Inguruan mai bat bere *sil´a kin*. Danian ar´antzako tresnak, kañabelak, sare puskak...

Leyuan zapiyak, ta er´tzean ar´ai zakar´ak (potak) zintzilik legor´tzen.

LENBIZIKO IRUDIA

I

KAITANA ta AITON JOXEPE, atariyan MIKELA

Aiton Joxepe exerita trezak azkatzen ta kulubixetan kor´dela lotzen. Er´aiña, Kaitana, sutan eltziak jar´tzen.

MIKELA (Ataritik ojuka). ¡Ama!

KAITANA ¿Alaba al zan?

JOXEPE Ala uste diñat.

KAITANA (Leyotik begira). ¿Zer´ da?

MIKELA Aita badator´ela.

AITON JOXEPE Goiz zetoztin gaur´, ezitunan ur´uti.

KAITANA Bai, iñauteri biaramonian nola eztiran buruak lan asko egiteko egoten, ber´tan geldituko ziran.

AITON JOXEPE ¡Iñauteria! ¡Deabr´uak sor´tutako egunak. Buruan sar´tua zekanat, oraindik egun oyek ekar´i biar´ digutela guri negar´a.

KAITANA ¿Guri? ¿zer´tatik?

AITON JOXEPE ¡Deun Jose aita neriak ez dezala nai! bañan Kaitana, kezka aundi bat zekanat bar´en onetan... batez ere gaur´ goiz ezkeru.

KAITANA ¿Zer´k egiña?

AITON JOXEPE Ire alabaren ibil´erak.

KAITANA ¡Ba! ¡gastien gauzak!

AITON JOXEPE ¡Deun Jose neria!, ¡ama baten erantzupenak!

KAITANA Zer´ nai dezu ba; gasteago dala ez da ibil´iko.

AITON JOXEPE Oker´ago ere ez. Kaitana, nik izan dixkiñat alabak, baño egundo eztitene gabik galdu, iriak galdu duben bezela.

KAITANA Nere alabak?

AITON JOXEPE Bai ire alaba, nere bil´oba Mikela, bar´t ezten etxeratu. Gau er´diyan sotorako otz egitera jua naizenian etzionan oyian. ¡Deun Jose! ez, etzunan oyian ta etzekiñat gero noiz sar´tu dan.

KAITANA Ar´itzen naiz aita esaten dezunakin.

AITON JOXEPE ¿Ar´itu? ni bat-ere ez oraingo bere ibil´erak ikusita.

KAITANA Ez gaitezela lar´itu geyo gabe; ez da aur´a.

AITON JOXEPE Aur´a ez dalako oker´tu den.
¿Eztakin ik iñauteri madarikatu oyetan zenbat sare jar´tzen ditun deabr´uak gastiak galtzeko?

KAITANA Gaste txoruak.

AITON JOXEPE (*Gogor´*). Ire alaba bat. Kaitana, ¿noiz sar´tu da bar´t etxian Mikela?... erantzan nazan... noiz?...

MIKELA (*Len bezela*), ¡Ama! sar´tu da baporía.

KAITANA (*Leyotik*). ¡Banian! (*Aitona´ri*). Ara *pr´onto* maya, sutatik bazkariya atera, ta eman semiari.

AITON JOXEPE Emango ziñuat.

BIGAR´EN IRUDIA

II

AITONA (bakar´ik)

AITON JOXEPE ¡A! ¿erantzun gabe zuaz?
!Abek gurasoak, Deun Jose neria!
¡Gauza gogor´a da!
¿Nor´k esan, aingerua bezin ona, ta oraindik ur´te gutxi nere belau netan txanbalaka, ta besoetan lo, jateko zoriyan, edukitzen nuben nere bil´obatxua, gaur´ ar´otua, ta lotsagabetua dagola? ¡Deun Jose! bai lotsagabetua ta aitonagandik igasi bere itz on bat entzun nai ezik.

(*Ikaraz ta itun*). ¡Ta bar´t, bar´t ez da etxeratu!
¿Non ote zan? ¿jolasen batian? ¿dantza nabar´en batian? ¡Jauna!
¿nere Mikela oker´tu ote da? Ala balitz ere zuzendu bear´ degu.
¿Nor´k? ¿nik? ¿nola entzun nai ezpadit? Ez, neri ezpada bere aitari
entzungo diyo. Nere semeari aitor´tu bear´ diyot dana, ta zuzentzeko
lanteri au bere gain ar´tzia gaitz izan ar´en bear´tuko det.
¡Bear´ekoa da! ¡Deun Jose, ain bear´ekoa!

IRUGAR´EN IRUDIA

III

AITONA ta ANJEL

- ANJEL (*Besopian otar´a, zira, kulibixak*). Ar´atsalde on.
- AITON JOXEPE ¿I al aiz Anjel?
- ANJEL Bai patroyaren tresnakin. Itsasua dakar´ ta baporía ondo amar´atzen
gelditu da.
- AITON JOXEPE ¿Asko ekar´i al dezute?
- ANJEL Gutxi, amar´bat ar´ua.
- AITON JOXEPE ¿Ber´tan al ziñaten?
- ANJEL Bar´engo kalan. Bi gizon *palta* genitun, makinista ere er´dipur´di
zeon, ta patroyak eztu ur´utiko kala´ra juañ izan nai.
- AITON JOXEPE Ur´terokua; ibil´i nola nai iru egun oyetan ta auster´i egunian buru
txar´a.
- ANJEL (*Samin ta burua´ri elduaz*). Aiton Joxepe...
- AITON JOXEPE ¿Zer´dek?... ¿ik ere buruari euzten al diyok?
- ANJEL ... Nik ezin nezake geyo...
- AITON JOXEPE ¿Orain ere Mikela´ren kontuen bat al dek?
- ANJEL Bai par´ez or´gelditu da, eta jar´anua! bere laguna ere bai... Aitona
txinista nazu ta Kar´lotare´kin ibiltzen dan bitar´tian or´ela izango
da... oker´ago jar´tzen ezpada.
- AITON JOXEPE ¿Kar´lotare´kin al zan orain ere?

ANJEL Beti elkar´ekin dira, eta aitona, ¿jar´dun batzuek ari dira neska or´etzaz! Au dala, ura dala, au dubela, ura dubela; nik eztakit, bañan zer´bait esan liteke. Aspaldiyan iñongo sotuan eztu lanik egiten, eta or´dabil´ apainduta gure ar´tian egoki eztan bezela.

AITON JOXEPE Eta nere bil´oba or´ekin...

ANJEL Beti.

AITON JOXEPE Anjel ¿ik esan al diyok ezer´?... naiko ukenik berakin ibil´i... maite dekala edo...

ANJEL ¿Esan?... ori ez da esan biar´ik... eta gañeaz ¿utzitzen aldu? beti an badaka zirikatzeke laguna.

AITON JOXEPE Nik esango ziyuat.

ANJEL Bañan aitona ez nuke nik beren par´agar´i gelditu nai.

AITON JOXEPE Ez, ezagutzen diat Mikela nere bil´oba, eta asko naiziyuat, iri ere bai... eta jakingo diat zer´egin.
Bitor´ zetor´ek, bazkariya ateratzea niak.

ANJEL Banijua or´duan aitona, agur´.

AITON JOXEPE Agur´ Anjel.

LAUGAR´EN IRUDIA

IV

AITONA ta BITOR

BITOR Ar´atsalde on.

AITON JOXEPE Jaungoikuak eman deigula.
(Bitor´ek atera txamar´a ta botak ta maieratu aitona sutatik ekar´i dion bazkariya jateko).
Gaur´ gutxi zenuten.

BITOR Gutxi, jende or´ekin nora jua.
(Bitor´ek jan. Ixil´ alde bat).

AITON JOXEPE Bitor´, gaur´ oso lar´i niok.

BITOR Zer´gatik?

AITON JOXEPE Mikela'ren gatik. Gure neskatil´a etzebil´ek zuzen... Mikela, ur´tiak edo lagunak, lagunak obeto ur´tiak baño, ar´otu egin ditek dana.

BITOR Aita, zentzun gabeko zure keska batzuek izango dira oyeke.

AITON JOXEPE Eztek ba-ezpadan ar´tzeko gauza. Mikela oker´tzen ari dek. Mikela´k burua aisez josiya zekak. Bestela uste al dek egingo lizkakela or´enbeste ur´uin ta bur´la ire baporeko mutil´ik zintzuenari?

BITOR ¡Gastien gauzak!

AITON JOXEPE ¿Gastien gauzak? Bitor´, ¿neska gastien gauzak aldituk aitona'ri par´egitia? ¿neska gastien gauzak aldituk amari par´egitia? ¿neska gastien gauzak aldituk, entzuntzak ondo, gabian ez etxeratzia?

BITOR ¿Nola?

AITON JOXEPE Bitor´, bar´t ire alaba eztek etxeratu. Goizeko or´dubitan oya oraindik utza ziokan, geruago etor´i bada etzekiak.

BITOR (*Jatez utziyaz*). ¿Bai al daki amak?

AITON JOXEPE Zer´-edo-zer´ bai, nere galdeera bati erantzun gabe jua dek eta.

BITOR Aita, jar´i zazu beriala Kaitana jakiñen gañian eta biyak ar´zazute Mikela gogor´.

AITON JOXEPE Kaitanak ez, eor´ek ar´tu biar´dek gogor´.

BITOR ¿Nik?

AITON JOXEPE Eor´ek bai. Esan eztiat ba par´egiten digula guri? Eor´ek esan biar´diyok.

BITOR Lan oyetako ez naiz ni gauza.

AITON JOXEPE Gauza ez aizela eta ¿zer´uste dek, beste geyo gabe utziko atela? ¡Deun Jose! ¿i ez aiz bere aita? Zer´uste dek mantendu ta jantzi beste zer´-egiñik eztezutela gurasuak? I aiz ludi onetara, Kaitana'ren gandik, Jaungoikuaren esker´ez, sor´tu ta ekar´i dekana. Ik eor´ek, gaur´edo bigar´, Jaungoiko or´en beren aur´ian *kontu* eman biar´dekana, erakutzi dizkatzuten aziera ta ikasbide guziyaz. Ala ezpalitz ere, ikusten eztek Mikelatxo gure alaba bakar´a dala? (*Oso xamur´*). Entzun nazak gogoz, eta alegiñak egin itzik gure neskatil´a zuzentzen, eta Deun Jose'ri eskatzen ziyuat betaz asitzeko bestela ¡seme! samintasun or´ek ilko niok.

BITOR (*Zakar´, eskuan daukan ogi puzka lur´era botiaz*). Dator´ela neska.

AITON JOXEPE Bai Bitor´, etor´iko dek, bañan zakar´keriyan eztek askorik aterako.

BITOR Zer´egin biar´det ba?

AITON JOXEPE Tajuz asi. Aur´ena bar´t zer´zuben jakiñ, eta zer´dabil´en esan azi.

BITOR Ondo da.

AITON JOXEPE Nik uste diat lagun txar´bat dala oker´tu dubena, ta galerazi biar´diyok ar´ekin ibiltzen.

BITOR ¿Lagun txar´bat? ¿nor´?

AITON JOXEPE Beti berarekin dabil´ena, Kar´lota, Katalin negar´tir´en alaba.

BITOR ¿Amaren antzekorenbat?

AITON JOXEPE Oker´agua ezpada. Eta eztek ar´itzekua ¿zer´nai dek ama aren eskuetatik irtentzia?

BITOR Onik ez.

AITON JOXEPE Ikusten dek ba seme lar´i egoteko eran nagola eta baita i ere. Iñauteriko jolasen bat bakar´ik balitz bar´tko er´ua, bañan etzekiat, etzekiat.

BITOR Zuzenduko det aita, utzi neri.

AITON JOXEPE Baniak satora trezak zabaltzera, eta seme, ez aztu gurasua aizenik eta Mikela, nere biyotzeko Mikela´ren izaesa on guziya, oraingo ibil´era zintzuetan dagola.

BITOR Ez.

(Ir´tengo da aitona. Entzungo dira atariyan par´otsak. Begiratuko du Bitor´ek leyoetik).

Par´otsak?... berak dira. Orain ere Anjel´ekin dute. ¡Neska ar´anua!
¿Nor´biar´ote du ori baño obia?

BOSTGAR´EN IRUDIA

V

BITOR, MIKELA ta KARLOTA

MIKELA *(Atetik izketan)*. Bai iruretako *tranbian* Matutene´ra. Musua bestu gabe zuaz sombral´u lastozkoarekin... ¡aja ja!...

BITOR (Zakar´) Mikela ¿zer´ dezute?

MIKELA (Oso legor´). Utsa... Ator´ aur´era (kar´lotari).

BITOR ¿Nor´kin unan?

MIKELA Zea... iñor´kin ez... (Karlota atetik sartu nai ez) beriala ir´tengo gaitun ator´.

BITOR ¿Nora ua?

MIKELA Or´ea (Ezker´etako gela erakutziyaz).

BITOR ¿Ez aliyokan amari lagundu biar´?

MIKELA ¿Zer´tan? ¿ekar´i dezutena jasotzen? ¡A zer´ bixigu pil´a zenuten!

BITOR (Bi ukabil´ak estutuaz). ¡Mikela!

MIKELA ¡Turmoya! or´egatik etor´iko ziñaten or´en goiz, er´di ar´ibadan... guazemak gu ere... igasi.
(Sar´tuko dira biyak ezker´etako atetik)

BITOR Mikela ator´ onera, ator´ onera. ¡Par´a! ¡neri par´a!...
¡Jo! ¡zapaldu! puzkatukoat eskuetan...!
(Ate ondoan geldituaz er´di negar´ez)
Ez... ez... eztakit... ez nuen onela asi bear´. Aita, aita, ar´azoi zendun.
Mikela oker´tu da, ta zer´bait egiteko pr´emiyan ar´kitzen naiz...
bañan ni ez... ez naiz gauza... ez... ez...
(Juango da eskuitatik. Une batian iruditegiya utzik).

SEIGAR´EN IRUDIA

VI

MIKELA ta KARLOTA

Ir´tengo da aur´ena Karlota - Gero Mikela ta itzaldiya egiten duten bitar´tean jantziko da, ta ixpil´u baten aur´ian or´astu.

KAR´LOTA (Ager´tuaz). Juan den.

MIKELA Baziñan or´du. Iya ikaratu nindunan. ¿Bar´t bailian giñala jakiñ ote du?

KAR´LOTA Nor´k esanta orain itsasotik badator´?

MIKELA Etzekiñat; amak bakar´ik zekin, ta ar´ek agindu ziñan etziyola itzik esango.

KAR´LOTA Ta esanta ere zer´? Or´enbesteko pekatua al da baile batian izatia?

MIKELA Etzekiñat; bañan alde egin ezpagendun sermoya gañian niñan. Egundaño eztiñat ikusi nere aita or´elako ar´pegi il´unarekin.

KAR´LOTA Gariziman nola sar´tu geran...

MIKELA Izan-ere gaur´ auster´i, autsa ar´tzeko eguna. Txiki, txiki tandik juaten nunan nere aitonarekin goiz onetan Elizara. Meza entzun ondoren aldare aur´ian belaunikaturik ar´tzen genikan biyak kopet gañian autsa, entzunaz apaizaren aotik, ta gero bide guztiyan nere aiton gizarajoen ezpañetatik: autsa gaitun, autsa izango gaitun, ta auts biur´tuko gaitun. Elizatik ir´ten ta amari erakustera juan ar´teko pakerik ez niñan izaten ikutu ere egin gabe jar´itako lekutik. (*Oldozkor´*). Ori iñoz... gaur´...

KAR´LOTA Guk ar´tu diñau gaur´.

MIKELA ¿Zubek? ¿noiz?

KAR´LOTA Seyetan Etxera gatzela gogoratu zayotek mutil´ari eliza'n sar´tzia, ta nola or´duantxe ematen aritunan danok ar´tu diñau. ¡Guk egin ditugun par´ak!

MIKELA Ni ez nunan juango.

KAR´LOTA ¿Zer´gatik ez? ¿zer´ uste de nik dala Eliza, zer´ apaizak, zer´ oyen ber´iketak, zer´ango autsa?

MIKELA Bai, bazekiñat, bañan ez nunan sar´tuko.

KAR´LOTA Ezagun den oraindik keska guztiyak ez ditunala bota. Boni´k kenduko dizkin burutik.

MIKELA ¡Boni´k! neretzako ote zion.

KAR´LOTA Noletan ez ¿ire amari ere esan etzion ba maite auela, ta irekin ibiltzen uzteko?

MIKELA ¿Juango ote dira gaur´ ar´atsaldian?

KAR´LOTA Onezkero an ditun.

MIKELA Ni ere oraintxen pr´onto nan ba, bañan etzekanat batere pozik juateko. Iruditzentzat eztirala gure erakuak, eta ayen gureganako maitetasuna ez dala benetakua. Aitonak diyona, len ere gure antzeko neska asko

olakoakin ibil´i ar´en gutxi edo inor´ eztala ezkondu..., ta bai asko galdu.

- KAR´LOTA Galdu ¡aja! ¡ja! ¡ja! Iri osaindik Anjel gogoratzan zain.
- MIKELA Etzekiñat, bañan ezten senar´-gai oker´a. Txar´aguak makiñatxok ar´tzen dizkitene.
- KAR´LOTA Bai, ta or´ zebiltzan txar´uan oliyo gutxi ta sudur´etan naikoa dutela. Gaur´ zer´bait dan neskak ezten ezkondu biar´... olakuakin beñepin.
- MIKELA ¿Olakuakin? ¿Zer´ besterik zion ba guretzat?
- KAR´LOTA Boni, txorakeri oyekin galtzen ezpaden. Ire lekuan beste enbat ar´kituko balitz ibil´iko luken gor´putz ta animaz nundik poz ta atzegiña emango lioken, ta i, itzuli ta biur´i abil´ ire gogo epela ager´tuaz.
Betiko ire ongi izatia eor´en gain zion, ta ezten ikusi nai. Zoriona ire atsetik zebil´en, bañan ziñezko zoriona, diruak ta aundizkiak ematen dubena, ez ar´astakako ta ar´lotetasunezko bizikera er´ukar´iyak ematen dubela esaten duten zorion ar´gal ura... ¡aja... ja, ja!
- MIKELA Guazeman.
- KAR´LOTA ¿Abainikorik bai al den?
- MIKELA Bai gor´dia zekanat.
- KAR´LOTA Ar´tzan ba, ni ere bil´a nian etxera. Itxongo nan pitin bat bian.
- MIKELA Ua; bitar´tian abek jasoko dizkiñat.
- KAR´LOTA Beriala nan ni bian.
- MIKELA Baita ni ere.

ZAZPIGAR´EN IRUDIA

VII

MIKELA *bakar´ik*

- MIKELA Bazkaldu gabetanik oyeratu da nere aita, dana emen lagata. Asar´e zeon gaur´ ¿ni gatik ote da? ¿bar´t *bailian* izan naizelako?
Bañan Kar´lota´k diyona ¿zer´ gaitz da ba ara juatia?
Ni ez bezelako makiñabat emakume bazan, ta geyenak zomor´oz, mazkaraz, jantzita.
Ango zalapar´ta, algara gozo ta erokerizko ibil´erak. Ango dantzak, jan-edanak, musika soñu ta bul´ak.

Guztiyak oraindikan emen dakaizkit nere buru bar´enian, ta gora ta bera, batera ta bestera neoni nere Boni´n besoetan bezela darabiltzkit. ¡Nere Boni!... Aitor´tzia nerezaz ez da gutxi. ¿Ta zer´gatik ez berak nai badu? Aberatza, bapore jabia, gizon bakar´a ¿nor´k galeraziko diyo? Biyotz guziz maite nau, ala diyo beak beñepin, erantzun zaiotan nik ere ber´din. Kar´lota, ar´azoi dezu, obe det Anjel baño. Au ona bada, ura ona ta aberatsa, bi ontasunen jabe dana.
(*gelara juaten asiko da*)

ZOR´TZIGAR´EN IRUDIA

VIII

MIKELA TA ANJEL

- ANJEL Ar´atsaldeon Mikela.
- MIKELA ¡Anjel! ¿zer´tara dator´ au?
- ANJEL (Aitonak agindu bezala aitak Kar´lota biali du, eta bakar´ik dagon ezkerok itz egin nai diyot).
- MIKELA ¿Zer´bait biar´ aldezu?
- ANJEL Ez.
- MIKELA Or´duan agur´, banijua.
- ANJEL ¿Nora Mikela? ¿nora?
- MIKELA Ara.
- ANJEL Ara, ara, ¿naidezu nerekin jua? goiza da, aldatuko naiz beriala ta biyok juango gera ara... ara, nunbaitera, zuk nai dezun lekura.
- MIKELA Ez da gaizki esana.
- ANJEL (*pozturik*) ¿Nai dezu beaz?
- MIKELA Gaur´ ez, len esan bezela gaur´ko lagunak egiñak ditut.
- ANJEL Mikela, ez nazazula or´ela erantzun. Beti nigandik igasi zabilta ar´pegi txar´a jar´iyaz; iseka ta par´ez inguruan zeran guztiyan. Zer´gatik egiten nazkitzu ur´uin oyek? Zer´gatik ager´tzen nazu or´en gogo gaiztoa?
- MIKELA Ar´gatik.

ANJEL Ar´gatik?... Zure lagun txar´ Kar´lota gatik. Ori da zuri burua aizez betetzen dizuna ta nigandik atzeratzen zaituna; ori nigatik gaizki esaten dizuna, zu ta beste neska geyo bere bidian jar´i ar´teraño pakerik izango eztuna; berari esaten zaizkan egi lotzagar´iyak nori zabaldu izateagatik.

MIKELA Oyek ezin eraman dutenen jar´dunak dira.

ANJEL Mikela, gar´atzak irudituagatik egidak dira eta zuretzat ere laister´ asiko dira or´ekin bazabiltz.

MIKELA (*Bizi*) Ber´itzuaren jar´dunak eta gaizki naidigutenenak, beste ezer´ ez.

ANJEL Oyen ar´tian naukazu ni?

MIKELA Eztakit.

ANJEL Badakizu bai nik gaizki nai etzaitutala. Zuk nai aña ontasun ta zorion opa dizkitzutela, ta nere gain leoken guztiyan alegiñak egingo nitukela zure gan danak ekar´tzeko. Itz batian Mikela, maite zaitut ta or´egatik nai zinduzket ikusi nerekin beste era batian eta beste bide obian.

MIKELA Aur´eneko ori beñepin.

ANJEL ¿Zer´gatik ez? egiya txalupik ez detala, baporerik ere ez, ez naizela diruaren jabe bañan badakizu, iñor´ badata, kai guztiyan ondo ikusiya nagola. Itsasoan bildur´ gabia, legor´ian paketsua, ar´antzale trebea, gizon pr´estua. Patroi izan nai badet ere, baporria nor´k emana izango detana.

MIKELA Egiya da.

ANJEL Or´duan ¿zer´gatik zabilta igasi? ¿Zer´gatik?

MIKELA Ni, eztakit.

KAR´LOTA (*Kaletik ojuka*) ¡Mikela! Zai nion ¿ez alator´?

ANJEL Kar´lota'ren deya.

MIKELA (*Leyotik*) Bai, banian.

KAR´LOTA ¡Mikela!

MIKELA (*leyo ondotik*). Banian!

ANJEL Mikela, etzera juango, iñola ere eztet nai, etzaitut Boni ta bere lagun neska galtzail´e oyekin juaten utziko.

MIKELA (Apa) Anjel, utzi nazu.

ANJEL Ez, ¿eztakizu ba Kar´lota oyekin bide txar´ian besterik eztala ibiltzen, ta nik nere andretzat autua daukatena ezin nezakela, izketan ere, oyekin ikusi? Mikela, utzi zazu Kar´lota, ta geldi zaitia, geldi, ta zuk zeonek aur´ez-aur´e berari esateko ar´pegirik ezpadezu, nik esango diyot, ta galeraziko diyot betiko emen sar´tzia.

MIKELA Ez, utzi nazu, neonek egingo det ori.

ANJEL ¿Noiz?

MIKELA ...Bigar´...

ANJEL Bigar´ ez, beriala.

KAR´LOTA (bar´endik) ¡Mikela!

ANJEL (leyotik ojuka) Eztijua... zuaz bakar´ik.

MIKELA ¿Zer´ oju egin dezu?... ¡au lotsa! ¿zer´ esan biar´ du Kar´lota´k?

ANJEL Dijuala pakian betiko.

MIKELA Ni ere banijua.

ANJEL ¿Nora?

MIKELA Nai detan lekura.

ANJEL (besotik elduaz) Ez.

MIKELA ¡Geldi! ¿zein zera zu neri galazteko!

ANJEL Galazteko iñor´ ez...

MIKELA Kendu aur´etik or´duan.

ANJEL Bañan ar´en egiteko bai... ta biyotzetik ezkatzen dizut... agiyan azkeneko aldiz...

MIKELA Eztet zer´ entzunik.

ANJEL Begira zazu zer´ egitera zuazen. Bar´t *bailian* izatia asko eztala; orain ber´iro oyetara juaten bazera, nerekiua egin dezu, ez dizute nere begiyak buru austerik geyo emango.

MIKELA Obe.

ANJEL ¿Izango zera or´en gogor´a? (Ezikutik dakala).

BEDERATZIGAR´EN IRUDIA

IX

LENGUAK eta KARLOTA

- KAR´LOTA ¡Aja, ja, ja! ¿Nai al dezute apaizaren bil´a beriala juatia?
- MIKELA (*Kar´lota gana junaz*) Kar´lota, guazeman.
- KAR´LOTA ¿Bakar´ik ala or´ekin?
- MIKELA Bakar´ik.
- KAR´LOTA Ori etzion beñepin gure ar´terako. txukuna.
- MIKELA Utzi akiyon ta guazeman.
- KAR´LOTA (*Len bere antzera*) Eztijua... zuaz bakar´ik... ¡aja ja! ¿zer´ uste ote du or´ek, beretzako or´asten geradela gu? ¡aja ja!... eltze zar´aren ar´pegi or´i bejira...
- ANJEL Zaude ixilik ta zuaz azkar´ or´tik.
- KAR´LOTA ¿Ni? azkar´ago juango zera zu. ¡Koñe! ¿Zer´ egiten dezu zuk emen? ¿Zer´ tara etor´i zera? ¿Treznak ekar´tzera? ba utzi ta ospa... ¡ikusiko da masopa! aitzekitan etor´i patroyaren etxera ta alaba atxitu nai somolo... somolo... ezer´ egingo ezpalu bezela.
- MIKELA Utzi akiyon ta guazeman.
- KAR´LOTA Goiz egin den etxiaren jabe ¡azkar´ asi den agintzen ¡Kontxe! ¡*marikita* ar´anua! etxetik ni juateko, ¿nor´k esan? or´ek... eskal´etatik baño leytetik ankaz gora lenago bota biar´ genuken mutur´ beltz or´ek.
- ANJEL ¡Lotsagabe ori!
- KAR´LOTA ¿Lotsagabia? ez zu bezin aundiya.
- MIKELA Guazeman Kar´lota.
- KAR´LOTA Eztiñan nai au juan ar´tian, emen egongo nan.
- MIKELA Ni banian ba. (*juango da ate ondora ta ondoren jar´aituko dio Anjel´ek*).

KAR´LOTA Mikela, bazian, or´den atzetik. (*biur´tuko da Mikela Anjelen aur´etik geldituaz au itza abuan dubela*).

ANJEL (*Kar´lota´ri ukabil´a altxiaz*). ¡A zikiña!

KAR´LOTA ¡Aja ja!... ¡amutik dontxel´ak igaz egin! naizendun ixilik ar´apatu ta... poto... Mikela, begira akiyon zer´ ar´pegiya daukan; bar´t bailian zebil´en aur´negar´ti aren *maskara* zirurin...

MIKELA Au neska, onen atera-aldiyak.

KAR´LOTA Moñoño, bakar´ik jua**n** biar´ko dezu... aur´tzayak ez du zurekin jua**n** nai ta. ¡Kontu punpalax egin.... ta ar´pegiyarekin lur´a zikindu...!

ANJEL ¡Deabr´uen neska!

KAR´LOTA ¡Apa, apa, apa, ama, ama, ama, aita, aita, aita!...

ANJEL Ixildu ari azkar´ bestela...

KAR´LOTA Par´ pitin bat egitian... ezta ala potxolo?

ANJEL Emango diñat nik iri par´a. (*Angel´ek botatzen dio ukabil´akada bat ta Kar´lotak eginten du kar´axi*).

KAR´LOTA ¡Ai!

AMAR´GAR´EN IRUDIA

X

LENGUAK eta AITONA

AITON JOXEPE ¿Zer´ da emen? Anjel, Mikela ¿zer´ da emen?

ANJEL Lotsagabe ori ixildu nai nuen.

AITON JOXEPE ¡Kar´lota nere etxian! Dijuala emendik azkar´.

MIKELA (*Kar´lota´ri*) Or´atx, orain aitona; len jua**n** ezgelarako. Guazeman emendik azkar´.

AITON JOXEPE ¿Mikela, nora ua?

MIKELA Aizia ar´tzea.

AITON JOXEPE Kar´lota´rekin ez, ori dijuala bakar´ik nai duben lekura.

MIKELA Biyok juango gera, nai degun lekura.

AITON JOXEPE I ez, ik egin biar´ den aitak agindu dikana.

MIKELA ¿Aitak? or´duan ezer´ ez.

AITON JOXEPE *(ar´iturik)* ¿Ez al din ezer´ esan?

MIKELA Ezta ja bat ere.

AITON JOXEPE ¿Deun Jose! or´duan nik esango diñat, bañan or´en aur´ian ez, bakar´ik.

KAR´LOTA Guazeman agure or´en ber´iketak utzita.

MIKELA Aitona, ez gaude zure ber´iketak entzuteko... ar´tsalde ontxua dago.

AITON JOXEPE *(besotik elduta)* Mikela geldi ari emen, ta i Kar´lota ua ur´uti, ur´uti, nai dekan lekura ta ez geyo nere il´obarekin elkar´tu.

KAR´LOTA ¿Or´enbesteko gaizkil´ia al naiz?

AITON JOXEPE Etzekiñat, bañan irekin dabil´en ezkerro Mikela oker´tzen ari den, etxeko esanari entzungor´ egiten, ta danak lotsagabekeriz jaben.

KAR´LOTA Bai ta Anjel´i ar´pegi txar´a jar´tzen ta zuk egin nai dezun ezkontza oker´tzen... ¿ez da ala, aitona?

AITON JOXEPE ¿Ber´itsuen neska!

MIKELA Ber´itsuagua zaude zu.

AITON JOXEPE Mikela, gaizki esan den, ez nan izandu ta ez nan ber´itsua, ik itz egin azitzen nan... alper´ik bada ere.

MIKELA Ain alper´ik... agur´.
(Kar´lota ta Mikela besua elkar´i emanaz juango dira aur´ena Anjel´en aur´era ta gero aitona´ren gana abestu ta dantzatuaz "La Machicha" er´deraz izendatzen dana)

No me hizo mi madre
para casada
porque de solterita
no me falta nada.

AITON JOXEPE Ago ixilik... ta geldi ari, geldi...

MIKELA Eztet nai... *(ir´ten abestuaz)*.

AITON JOXEPE ¿Mikela! ¿Mikela!...

AMAIKAGAR´EN IRUDIA

XI

AITONA, ANJEL ta BITOR

BITOR (*ir´tengo da er´di jantzian*) ¡Mikela! nun da Mikela?

AITON JOXEPE Ara nun dijuan.

BITOR (*eskal´etara ojuka*) ¡Mikela! ¡Mikela!

AITON JOXEPE Alper´ik, alper´ik... berandu abil´ seme... berandu abil.

BITOR Berandu ez. etor´i biar´ko du... (*leyotik ojuka*) ¡Mikela! ator´ azkar´ gora... badijua... zer´... zer´... aita´ri ori egiñ (*aotza altxiaz*). Mikela... ¡etzaiz geyo, egundo geyo, aitaren etxian sar´tuko!

Aur´eneko egintzaren azkena,

BIGAREN EGINTZA

Martutene'ko zelayak
Ezker'etan Kursaal-etxea.
Atzian jolas lekuak.
Aur'ian mayak, exer' lekuak ta abar'...

LENBIZIKO IRUDIA

I

BONI ta PAKO aur'eko mai batean exeriyak. Pako lua ezin irukirik. Inguruko maietan jende geigo. Danak ser'bitzen Mutil'a.

- BONI Iruter'diyak; laister'dituk emen.
- PAKO Etor'tzen ba-dira, bai.
- BONI Kar'lota etor'iko dek beñepin ta... Mikela ere bai. Bar't'ko sorokeriyak etzaizkiokan oraindik aztuko ta damutzeko garairik nola ez duben etor'iko dek.
- PAKO Etxian galerazten ez baziotek.
- BONI ¿Etxian nor'k? amarena egiña zioz ta ar'antzale etxietan nola eztiran gizasemiak ezer'tan sar'tzen... Gañeaz lumatua zioz eta egan bazekik.
- PAKO Neska eder'a dek.
- BONI Neria izango dek ba.
- PAKO ¿Ta zer'egin biar'diyok bestiari?
- BONI ¿Karmen'i?... utsa, laga, dijuala zigar'eira; naiko denboran mantendu diat. Arako obia dek lotsagabe ura. (*Pako'k egiten du balantz aundi bat*). ¿Zer'abil'mutil?
- PAKO ¡E!... (*aoa zabalduaz*) au lua zekat,
- BONI Ba, badakik, lota oyera.
- PAKO Lua aña bazekat egar'iya.
- BONI Ba-dakak ba zeni eldua. (*Pako'k txalo joko du*). ¿Zer'biar'dek?
- PAKO Zer'beza.

BONI Emen eztakak ba.

PAKO Geyo or´dian.

BONI Erantzak, erantzak bar´engo sua itzaltzeko (*txalo ber´iz*).

MUTIL´A (*Atzerotik ojuka*) Or´naiz.

BONI ¿Zenbat biar´dek?

PAKO Asko, asko.

MUTIL´A ¿Zer´dijua?

BONI Beste ontzi aundi bat.

MUTIL´A Beriala.

BONI ¿*Tranbiak* zer´garaitan dira?

MUTIL´A Or´du er´diro, oraintxen etor´i da bat, or´dator´jendia.

BONI ¿Or´ote da? (*Altxa ta begiratuaz*).

PAKO Azkar´ekar´i.

BONI Erantzak bitar´tian emen dagona.

PAKO Ekatzak ba... asko e, asko (*basua eskuan dubela*).

BONI To guztiya, to, irikizak abua... asetuko ote degu au...
(*Bar´endik ojuka*)

KAR´LOTA ¡¡Boni!!

BONI Kar´lota ta Mikela.
(*Juango da beren gana baso zer´beza eskuan dubela*)

PAKO Bota zak ba, bota... ¿oi nun da?... jori dek! nesken gana baso zer´bezarekin ta ni ezer´gabe, egar´iyak iltzen.

MUTIL´A Ara emen.

PAKO Ala-re, ala-re.
(*Mutil´ak beteko du basua*).

BIGAR´EN IRUDIA

Lenguak, MIKELA ta KARLOTA

(Sar´tuko dira eskuitatik - Mikela basua eskuan dubela)

- BONI *(Ar´tuaz Mutil´ak bete duen basua)* Tori zuri ere Kar´lota.
- PAKO ¡E! i ori neria dek, ekatzak...
- BONI Bete zak beste bat.
- MIKELA ta KAR´LOTA Ar´atsaldeon, Pako.
- PAKO ¡Mikela ta Kar´lota!... bai zueri ere... ¿etor´i al zerate?
- KAR´LOTA Ba-diruri. *(Pako´k txalo juaz)*.
- BONI ¿Zer´ biar´ dek?
- PAKO Zer´beza geyo, egar´iyak niok eta danentzat emen etziok.
- BONI Ase ari ba bein betiko.
- PAKO Ik ematen nakenakin...
- KAR´LOTA Nik emango dizut ¿nai dezu?
- MIKELA Ta nik.
- BONI Batek, edo bestiak.
- PAKO ¡I muxur´din! batek eta bestiak... biyak...
- MUTIL´A ¿Zer´ biar´ dezute?
- BONI Bar´ika bat zer´beza or´entzat.
- PAKO Ta iretzako ez, betetako danak ar´tzen dituk-eta; ekar´i ontzi bat.
- MUTIL´A ¿Aundi bat?
- BONI Bai.
- (Bitar´te onetan bete dituzte neska´k beren basuak)*
- KAR´LOTA Neria aur´ena, tori.
- MIKELA Tori neria-ere.

PAKO Ezker´-eskubi, ¡au mauka! biyak batian.

BONI Bota zayozute burutik, pr´emiya daka-ta esnatzeko.

MIKELA ¿Lua?

BONI Oyeatzia aztu.

PAKO (*Kar´lota´ri biur´tuaz basua*) Batena... segi, ber´iketan... eta bi... ¿ez aldago geyo?

MUTIL´A Ara emen.

PAKO Gutxitxo or´dian.

BONI Dana iretzat. Guazen Mikela aruntz ta geldi deiela bera danakin.

MIKELA Guazen ba Karlota.

PAKO Obe... dana neretzat... obe...

KAR´LOTA ¿Ez gero ito?

PAKO Ez Mikela´rekin dantzan egin gabe.

KAR´LOTA ¡Ja... jai!... ¿esnatu al zera?

MIKELA Or´tako bai.

BONI ¿Izango al da gaur´?

MIKELA Bai, gure *tranbian* ber´tan etor´i dira musikuak.

KAR´LOTA Ta ayekin Tutulux ta Koipe, ¡ori *br´oma* ekar´i dute! Tutulux er´dipur´di dator´.

BONI Loyola´ko or´dez onera, lapak jatera, etor´iko dira; guk ere zer´bait jan biar´degu.

PAKO Ori nere *kontu*, nik eskatuko det goguak ematen didan guztiya.

BONI Lapak beñepin gaur´jatia oi dan bezela..

KAR´LOTA Ta egaztiyak...

MIKELA Ara, ara musikaren otsa...

entzungo da musika soñua ta sar´tuko dira eskuitatik zalapar´tu aundiyan

IRUGAR´EN IRUDIA

III

Lenguak, TUTULUX, KOIPE

lanper´na saltzal´ia, ereslariak ta ondoren gizon ta emakumeak.

Tutulux da ikaragar´izko gizona. Donostian Manix zan antzekoa. Koipe bakal´u ezur´a.

Danok abestuaz ereslariak jotzen duten doñ´uan.

Erotu ar´te
eldu-ta saltzan
ibilduko gera
gaur´ danok dantzan.

Zar´ eta gaste
neska ta mutil´
aberats, bear´tsu
egikik naspil.

TUTULUX !Moso, makar´oso, un upel de sidra!

KOIPE Y otro upel de zer´beza.

MUTIL´A ¡Ara emen ni! ¿zer´ dijua?

LANPER´NA SALTZAL´IA (atze aldetik ojuka) ¡Lan... per´nak!

TUTULUX ¿Zer´ jango degu gaur´?

KOIPE Oraindik goiza dek.

LANPER´NA SALTZAL´IA (Tutulux´en aur´ian) ¡Lan... per´nak!...
Gastetxuak lanper´nak.

TUTULUX ¿Noizkuak dituzu? ¿juan dan ur´tekuak?

LANPER´NA SALTZAL´IA Ez orixen, pr´exko, pr´exkuak, gaur´ goixian.
Igeldo pian ar´apatuak.

KOIPE Zaude ixilik, zure lanper´nak otar´ian ber´tan botatzen dute *kriya-ta*.

LANPER´NA SALTZAL´IA ¡Kontxo!, gizonen ateraldiya, etzera ni aña
bustitzen.

KOIKE ¿Eudiyakin?

LANPER´NA SALTZAL´IA Ur´ gaziyaekin.

KOIKE Ezagun da bai, lepuan belar´iyetaraño dakazu *kraka-ta*.

LANPER´NA SALTZAL´IA (*Bana emanaz*) *Tira, tira... pr´oatu ia onak daudezen... ¡lan... per´nak! (Boni ta lagunari) ¿gastetxuak nai dituzute zuek ere?*

TUTULUX Eder´ak zioztik!... Danak gureztat.

BONI Ta gureztat... *par´te* gu ere.

KOIKE Bai orixe... bañan gu ere bai gero oyekin dantzan. (*Kar´lota ta Mikela gatik*)

TUTULUX Guazen ara belar´etara, an gar´bituko degu otar´ guztiya.

DANOK Guazen, guazen.

BONI Musika ta guzti.

TUTULUX Bai, bai, jodezatela... jo dezatela...

KOIKE Tutulux eldu otar´ari.

TUTULUX ¡Altza, Koipe! ¡eup!

 (*Sar´tutako eran juango dira ezker´etatik. Tutulux ta Koipe otar´arekin*)
 (*Aur´ena ereslariak juaz, ta ondoren danok abestuaz iskanbil´a aundiyan*)

DANOK *Abetuaz.*

 Lanper´na´k janaz
 lapak ere bai
 gaur´ko ar´tsaldia
 juango da alai.

 Sagar´do, zer´beza
 ar´do ugari
 sabela jar´tzagun
 bero ta guri.

 (*Danak eskutatzeakoan*)

KAR´LOTA Guazen gu ere.

PAKO Eldu ba besotik.
KAR´LOTA ¡Aupa! guazen Mikela.
BONI Zuazte, au nerekin juango da.

LAUGAR´EN IRUDIA

IV

MIKELA ta BONI

BONI ¿Guazen dantzara?
MIKELA (*gogo gutxirekin*) Nai badezu.
BONI ¿Ez daukazu gogorik?
MIKELA Ez askorik.
BONI ¿Zer´ dezu ba?
MIKELA Bar´t ezkerro, baña batez ere eguar´di ezkerro estakit zer´ ger´tatzen zaidan ¡samin nago!
BONI ¿Ni gatik? ¿ni al naiz samintasunez il´untzen dizkitzuna biyotza, ar´pegi eder´ ta begi zoragar´i oyek?
Ala balitz aitor´tu zazu Mikelatxo, ta iñor´ gizonek sor´tu ezditun alegiñak egingo ditut zu alaitzeko, zu pozak ikusteko.
Zurekin bat izanik bizi nai det, nere gogo ta anima, biotzeko asmo ta nai guztiyak zureakin bat egiñik, ta onela elkar´ maitatuaz zoriontsuak izango gera biyok, ni orain zure ondoan ar´kitzen naizen bezela, zoragar´izko zoriontsu!
MIKELA ¿Zu ala zaude?
BONI Ni, Mikelatxo, bai. Begira nazu begiyetara... bañan ez or´ela... aur´ez-aur´e... bekokiya iguaz... zure begi beltz eder´ oyek erekiyaz, ikusi ditzatan beren bar´endik zure biyotzeko asmo sakonenak.
(Mikelak begiyak itxi ta negar´)
¿Negar´ egiten dezu? ¿ez nazu entzun nai? ¿bar´t-ko asmo guztiyak utzi ote dituzu? ¡Mikela!
MIKELA Ez Boni, esandakoan nago, ta itz oneri gogor´ euztearengatik ar´kitzen naiz orain bar´engo nai-gabe onekin.

Bar´ t zurekin nintzan amaren baimenarekin, orain... bakar´ ik nago, danok aur´ ez-aur´ e ditudala.

Nere aitona, aita, ta baita senar´ gai eman nai ziaten Anjel ere jar´ i zaizkit aur´ ian er´ eguz aur´ ena, ta gogor´ egiñaz gero, zuregana etor´ tzia galerazi nayian. Aitak... aitak oju egin dit leyotik, geyo, egundo geyo, ez naizela bere etxian sar´ tuko, neri, bere alaba bakar´ ari...

BONI ¿Aitak ori esan dizu? Gaizki, txit gaizki egin du.

MIKELA Nik biar´ tu det.

BONI ¿Zer´ kin? ¿gaur´ onera etor´ tziakin?

MIKELA Bai, zure gana.

BONI ¿Zer´ tzat naukate ba ni? ¿Anjel baño gutxiyagotzat? ¿Ni aberatsa, itsas-ontzi, txalupa, bapore, tresna askoren jabia, ura aña zurekin ibiltzeko ez naiz? ¿Zein da ori diyona? ¿ama? ez, nerekin batian baidago, ¿aita? zer´ daki ar´ ek itsasuan ar´ antza egiten baizik, ta legor´ ian dagonian taber´ na zuluana ke-tar´ tian, ez sendi, ez alaba, ez emazte, iñor´ tzat gogoatzen ez tala sur´ ut egiten besterik?

MIKELA Nere aitak ez du taber´ narako griñik.

BONI ¿Non uste dezu ba Anjel, gizon kir´ ten, itz gabeko or´ ek ar´ apatu duela bere alde jar´ tzeko? ¿itsasuan?... ez, baso ar´ duaren aur´ ian.

MIKELA Aitona da nai dubena.

BONI ¿Aitona? or´ tarako egokiyena... txanpon bat irabaziko ez du, ta etxera dirua eramane lezakena bota nai... ¡Mikelatxo! (oso xamur´) utzi danok ta atoz nerekin.

Zure gurasuak ez dakite zeren jabe ziran ta bota egin zaituzte etxetik; ba nik, pus katurik biyotza zure gaur´ ko ger´ taera samiñ or´ ekin, ez naiz zu ongi ikusi ar´ tian geldituko.

Nik bil´ atuko dizut etxia, nik jar´ iko dizut gelatxo bat, egundaño ametzetan ezpada, ikusi ez dezuna, ta au zu ta ni, ta ni ta zu, bat egiñik biziko gera ongi, luzaro ongi...

MIKELA (Atzera egiñaz) Boni ez, ezin nezake... ezta ori neska ezkogayaren bidia... ez.

BONI ¿Gurasuak bota etzaituzte? zaude ba berak bil´ a etor´ i ar´ te; ta sinistra nazu, nerekin bazatoz askar´ dituzu inguruan.

MIKELA Ez, ez...

BONI Nik egin nezake zure aita bapore jabe... ama etxe jabe... zu aberatz, ni ta nere ontasun guztien jabe... jantzi eder´ ak, txapel galantak, mai ona, jolasak, ibil´ era alayak, danak izango dituzu ta ezperik gabe,

diru bil´a ibil´i gabe, zure esku polit abek latztu gabe, lakar´tu gabe...

MIKELA Etxera juan biar´ det.

BONI ¿Galerazi eztizute?

MIKELA Bai bañan apalduko naiz, ta ar´tuko naute. Boni, zeonek aita´ri itz egingo diozu ¿maite nazula esaten ez nazu? lagundu nazu ba er´u au zuzentzen, gurasoakin aizkiratzen, ta or´duan ikusirik zure asmo zuzenak, gure alde jar´iko da aita, utziko dit ibiltzen, ta bear´ bezela, nai badezu, zuria izango naiz.

BONI Zure gurasuak ez dute gu apaltzerik *meresi*; berena da oker´a, datozela ba.

MIKELA Mendekua ni naiz; alaba bai naiz.

BONI Ta ayek gurasoak bai... ta ayek zuri erakutsi bear´ dizutenak... ez zuk ayeri...

MIKELA Boni, nere aita ona da... nere aitona ere bai...

BONI ¿Ni naiz or´duan txar´a?

MIKELA Ez diyot nik ori...

BOSTGAR´EN IRUDIA

V

Lenguak, PAKO, gero MUTIL

PAKO ¡Au egar´iya, ta lua!... ¡a... a a! (*aoa zabalduaz*).

BONI Pako dator´, guazen.

PAKO ¿Zer´, oraindik emen? Kar´lota an dabil´ dantzan puskatzen ¡ori zalapar´ta dago!

BONI Orain guaz gu.

PAKO Mikela, esana-esan, nik gaur´ zurekin dantza bear´ detala.

(*Pako´ren laguntza ar´ki nayian*)

MIKELA Guazen ba or´duan... atoz, biyoren er´diyan juango naiz.

PAKO Zaude puxkabat, eratian.

BONI (Asar´e antzean) Gero ar´te.

MIKELA Itxon zayogun, beriala dator´.

BONI (Zakar´) Ez, guazen.

MIKELA Zai gelditzen naiz.

PAKO Bai, panpoxa, agur´ (*muxu botiaz*).
 (*juaten dira biyak ezker´etatik*) Eztakit zer´ dakaten nik bar´en onetan olako egar´iya izateko.
 Eztet ba bakal´u gor´diñik edo sar´din-zar´ik jan (*txalo juaz*).

MUTIL´A ¿Zer´ dijua?

PAKO Ekar´i nazu *limonada* bat.

MUTIL´A ¿Txikiya ala aundiya?

PAKO Aundiya.

MUTIL´A Beriala; jai diramona izan, ezagun da, bai.

PAKO Azkar´ibil´i.

MUTIL´A Banator´aidian.

PAKO Eran ta eran, ta alper´ik, beti ao-legor´a.

SEIGAR´EN IRUDIA

VI

PAKO, AITONA, ANJEL ta MUTIL

ANJEL Iritxi gera. Emen izango da.

AITON JOXEPE Jaunak entzun deikela ta, baita neri ere ¿neska gureganatuko ote degu? ¿Nun gera? ¿zer´ da etxe aundi ori, zubi ayek, putzu or´etan dagon txalup´ori? ¿Zer´ jende oyen jolasak, musikak?... ¿ber´iro iñauterira al guaz?...
 Anjel ¿nun gaituk?

ANJEL Esan dizut ba. Matutene´n gera.

AITON JOXEPE Matutene ezagutzen diat, bañan eztek au. Askotan izan nak Matutene'n bañan emen ez. Sagar´dua eratera etor´tzen nukan... ez onera... onera ez... Katalintxo, Lazune, Aingelo, Tolozar´ non dira?... nora eraman dituzte emengo baser´iyak...?

ANJEL (*Eskuitara begira*) Beste alder´dian dira... begira zazu, ara or´nun daudezen.

AITON JOXEPE Egiya, ikusten dizkiat. Lagunar´te eder´ak igarotako lekuak, baita ere ekar´itako *merienda familiyarekin* janaz... Ur´te asko eztala, nere alaba ta bil´obatxoarekin izan nukan emen, ez... emen ez... or´... ta sagar´do gozua eranaz igaro genikan ar´atsalde osua jolas eder´ian. Mikela ezukan gelditu batera ta bestera mitxir´ika-mariposaren atzetik. Mazuztak bil´atzen, mendi-mar´ubiyak biltzen, ta aitona eroturik gora ta bera ura zaitzen. Etzanda ere sayo aundi bat egin genikan kir´kir´ak ar´apatzen... ¡Zoragar´izko egunak, jua ziradenak ta geyo etor´iko eztiranak...! (*exeritzen da mai baten aur´ian*).

ANJEL Oroimen aundiko lekuak dituzu abek.

MUTIL´A ¿Zer´biar´dezute?

ANJEL Ezer´ez.

MUTIL´A ¿Zer´tan zaudezte ba mayian?

ANJEL Nekatua dator´-ta.

MUTIL´A *Tranbian etor´tzia zenuten... (Pako dago lotan. Ereko du Mutil´ak "limonada" botil´a ta gero esnatuko du Pako). Ara limonada...! entzun! ara emen limonada...*

PAKO ¿Zer´... zer´?

MUTIL´A *Limonada... len eskatu nazuna...*

PAKO A!... bota zazu baso-ra.

ANJEL Guazen aitona.

AITON JOXEPE Ago Anjel, nekatua niok.

ANJEL Eztute emen lagatzen ezer´ar´tu gabe egoten.

AITON JOXEPE ¿Egotia ere galaziya al zioke?... gu bezelakoentzat izango dek... guazemak...

ANJEL Ar´tu zagun bestela sagar´do pixkabat.

AITON JOXEPE ¿Izango al da?

ANJEL Bayetz uste det...

MUTIL´A Ezer´ biar´ ezpadezute alde emendik.

ANJEL Ekar´i zazu sagar´do botil´a bat.

MUTIL´A Asturias´kua, Oyar´zungua, Usur´bilkua?

AITON JOXEPE Emengua... er´besteko sagar´dua guk eran?

MUTIL´A Or´duan Oyar´zun... banator´beriala.

AITON JOXEPE Oyar´zungua esan dik ¿ez al da ba emen sagar´dorik geyo sor´tzen?

ANJEL Botil´etan ez dute angua besterik irukiko.

AITON JOXEPE Eztek ba kupelekua beziñ ona izango...
Dator´ela azkar´lenbailen bil´oba bil´atu dezagun... A! ¡ori bul´a ta
zalapar´ta!... ¿ez al da emen garizimarik?...
Anjel itxua niok ta eztiat ezer´ezagutzen, bañan ik ¿ikusten al dek
Mikela?... esan nazak... ¿or´altzebil´ek?...

ANJEL Begiyak botiaz egon ar´en eztet ikusten, bañan (BATBATEAN
POZTUAZ) emen da. Kar´lota or´dabil-ta.

AITON JOXEPE ¿Kar´lota bai...? or´dek or´duan... guazemak...

ANJEL Zaude apur´bat. Sagar´dua ekar´tzian ta eratian.

AITON JOXEPE Ar´azoi dek... tajuz asi bear´diagu... exerita egongo nak. ik begira
zak.

MUTIL´A Ara sagar´dua.

AITON JOXEPE Anjel, ator´... ekar´i dik sagar´dua.
(*Erekiko du mutil´ak ta botako du basuetara*)

ANJEL ¿Zenbat da?

MUTIL´A Sei er´ial.

AITON JOXEPE ¿Zer´esan dek?... ¿txopiñeko botil´a sei er´ial?...

MUTIL´A ¡Zer´txopin ta zer´pitxar!...
Sei er´ial da ta eman neri azkar´ta kito... (berez). Nik diat kulpa
ar´lote aberi *ser´bitziakin*.

AITON JOXEPE Anjel, etzakiyokela eman... gor´de dezala beretzat... nik eztiat erango... ik ere ez... sagar´dua eskatu diagu ta ori eztek izango sagar´dua or´enbeste baliyo badu.

ANJEL Sagar´dua da, bai.

MUTIL´A Ez, txanpain izango dek... ber´iketa gutxi ta bota neri dirua.

ANJEL Emango dizut.

AITON JOXEPE Eztiyok emango.

MUTIL´A ¿Zer´tan eskatu dezute ba?

AITON JOXEPE Ez jakiñian zenbatekua zan.

MUTIL´A Ur´enako badakizu ba.

AITON JOXEPE Bai, zuk ere aur´etik esaten ikasiko dezu... guazemak Anjel.

MUTIL´A ¿Neri pagatu gabe?... ez ori... ¡agure zar´pal´a!

ANJEL Zaude ixilik ta tori.
(*Dirua luzatuaz ta aitona tar´tian sar´tuaz*)

AITON JOXEPE Ez... ez...

PAKO ¿Zer´dezute or´u oyekin?

MUTIL´A Zera, sagar´dua iriki azi ta orain pagatu nai ez...

AITON JOXEPE Eztet nik or´engatik sei er´ialik emango.

MUTIL Biar´ko.

PAKO ¡Ai aitona! Oker´etor´i zera zu, au ez da upelategiya.

MUTIL Botil´a iriki ta gero...

PAKO Ekar´i nazak neri, nik erango diat. Aitona, eran zuk ere, nik pagatuko det.

AITON JOXEPE Eskar´ikasko. Gaitz egingo liake, ezta ori guretzako erariya.

MUTIL Ez, ez, zuaz zu taber´na zulora, arako obia zaude.

AITON JOXEPE Guazen emendik.

PAKO ¡Gizarajuak!

MUTIL ¡Lotsagabiak!

ZAZPIGAR´EN IRUDIA
VII

PAKO, MUTIL, TUTULUX, KOIPE, BONI, KARLOTA
Ereslariak, Lanper´na saltzal´ia ta diran guztiyak

- TUTULUX *(Bar´endik ojuka)* ¡Ar´ee! ar´ee!
- PAKO *(Altxa-ta ezker´era begira)* ¡Oi! Tutulux asto gañian.
- MUTIL ¡Asto gaxua!
- TUTULUX *(Beti bar´endik)* ¡Ar´ee!... ¡ar´ee!...
- PAKO ¡O! ler´tu biar´ du gañekuak azpiko astua.
- TUTULUX ¡Ar´ee... ar´ee!... ¡ai... ai!... ¡izo!... ¡izo!... ¡izo!... ¡ai... ai!...
- PAKO ¡Ai ama! botako dik Tutulux ankaz gora.
- MUTIL ¡Antziak!!... ¿ler´tu ote du? *(Juango da ikustera ta Pako exeriko da par´ez. Bar´enen Tutulux antzika ta danak ojuka).*
- KOIPE *(Bar´endik)*. Sil´a bat, sil´a bat. *(Eramango du Mutil´ak ta bereala ekar´iko dute Tutulux sil´an etzanda Koipe, Kar´lota ta Mutil´a´ren ar´tian).*
- KOIPE ¡Tutulux, Tutulux!
- KAR´LOTA Ur´ pixkabat.
- KOIPE Zer´beza obe du.
- KAR´LOTA Ar´pegira botatzeko da.
- KOIPE Ar´pegira baño nayo du onek abora.
(Tutulux´ek erekitzen du aoa)
- PAKO Ara sagar´dua. Tutulux, erantzak. *(Dana uztu)*
- KOIPE Aixkiria etzaizu lar´iyakin ezta´iya etxi...
- PAKO Irikitzeko añako ar´antsak egin al dizkik.
- TUTULUX ¡Asto zikiñ ura!

KOIKE Ar´ek eztik kulpik, ik, eor´ek. ¿Jar´iko itzan ba asto txiki ar´en gañian? eder´ki asko ekar´i niok ni neriak.

KAR´LOTA Bai ni ere.

KOIKE Or´ek zekan *pantaziya* danen buru zetor´elako ta... buruz eroridek.

TUTULUX Astuak burua jetxi duelako.

KOIKE Ik geyo jetxi dek... lur´eraño.

TUTULUX ¿Nun da astua?

KOIKE Aidian an juaan dek... jar´ek eramandu poza!

TUTULUX Ire gatik dek; dantzan alako eder´ki gebiltzala gogoatu zaik asto gañian etor´tzia, ta tó...

KOIKE Gu eder´ki etor´i gaituk. Egoki izateko ik, eorek, ar´tu biar´ukan asto txiki ura gañian.

TUTULUX Emango diat begiondako bat ixiltzen ezpaiz.

KOIKE Ezker´ekin edo eskubiyakin.

TUTULUX Zaplateko batekin kenduko diat il´ian dakaken koipe guztiya.

KOIKE (*Buruko or´azkera erakutziyaz*). *Kosmetiko Ideal*, dos pesetas la koskor´a, to, egin akiyok usai.

TUTULUX (*Buruan jo nayian altxata*). To, egin akiyok azkure.

DANOK ¡E! e! Sendatu da, sendatu da!...

KAR´LOTA Koipe´ren buruko koipia´kin...

KOIKE Guazen ber´iro dantzara. (*Danoz algaraz aldi batean*).

PAKO Emen ber´tan; dator´ela *musika* onera.

TUTULUX Ta dator´ela Mikela´ere nik ar´ekin dantzatu biar´det.

KAR´LOTA Boni´k uzten badizu. Geitxo dabilta elkar´ekin. Eztakit orain ere nun diran.

TUTULUX Or´duan zurekin ba.

KAR´LOTA ¡A, bai! or´takoxe niok. Dantza zaitia nai badezu lanper´na saltzal´iarekin, an dator´.

TUTULUX Zuk baño obeto daki ba.

KAR´LOTA Obe.

KOIKE Emen datoz danak... leku leku... ementxen dantzatuko gera...
(*Etor´iko dira ereslariak ta jar´iko dira antzian*).

TUTULUX ¿Zer´ nai dezute jotzia? vals, xotis, polka, abanera, mazur´ka...

KOIKE Utzi akiyotek ik geldirik. Jo dezatela nai dutena.

TUTULUX Ez, nik eramango diat *konpasa*.

PAKO ¡Tutulux *diretore!*

KAR´LOTA Norekin dantzaturik estulako.

TUTULUX Ber´iketa gutxi, ta guazen.
Ya mutil´ak, jo zagun *el xotis del disloque...*
Zalapar´ta geyena ta ger´iya ta lepua geyena oker´tzen duten neska-
mutil´ari, bost duro.

KOIKE ¡Ja, ja, ja... etziok gaizki.

KAR´LOTA ¿Ta geldiyena ibiltzen diranari?

TUTULUX *Paper´lija* puzkabat, elkar´i ar´pegiyan utzitzen diyoten kraka
gar´bitzeko.

(*DANOK ALGARA. Joko dute ereslariak ta asiko dira danok dantzan. Geroxiago sar´tuko dira Boni ta Mikela; or´duan utziyaz Tutulux´ek eres-neur´iya eramatez, juango da berengana ta txapela eskuan duela eskatuko dio Mikela´ri dantza aldiat. Joango da Boni mayera, zer´beza eratera, ta ekingo diyote dantzan Mikela ta Tutulux beste danen tar´tian.*)

ZOR´TZIGAR´EN IRUDIA

VIII

LENGUAK AITON JOXEPE, ANJEL
bukaeran bi er´tzain-poliziko edo mikelete

(*Juango dira biyak Mikela´ren gana. Tutulux asiko da mar´uaz dantzan galerazten diotelako ta ereslariak ixilduko dira*)

AITON JOXEPE ¡Mikela! ¡Mikela!

TUTULUX E! e! e! Laga guri pakian.

MIKELA Aitona, ¿zer´ zabiltza emen?

AITON JOXEPE Ire bil´a, leku abetatik eraman nayian.

MIKELA Zuazte emendik, ez nijua.

TUTULUX Onduena nebil´enian agure zar´ak neska kendu ¡Tutulux, txautu aute!

AITON JOXEPE Mikela guazeman, Anjel ta ni ire bil´a etor´i gaitun.

BONI ¿Ar´atsalde er´diyan zatoz Mikela´ren bil´a? Utzi zayozu orain, bere garayian juango da.

MIKELA Zuazte etor´i zeraten bidean. ¿Nola nai dezute orain juatia?

AITON JOXEPE Gaitzago izango den gabian.

BONI Gabian neonek eramango det.

ANJEL ¿Zein zera zu or´i lagun egiteko?

BONI ¿Ta zu zein zera neri ori esateko?

ANJEL Neska or´ekin zuk baño zer´-ikusit geyo dubena.

BONI Bai nai.

TUTULUX ¡E, e! Eman zalapar´ta gutxi, ber´iketara *kanpora*, emen dantzatu egin biar´ da, ala... ala... guazen ber´iro.

ANJEL Utzi gaituzu pakian.

MIKELA Atoz onera Boni. (*Ezker´era eramanaz*)
(*Jar´iko dira bi alditan ezker´etan Mikela, Boni, Anjel ta Aitona. Eskubitan gañeakuak*)

KAR´LOTA Eskañi zayozu aguriari lanper´na saltzal´ia, *pareja* polita egingo dute biyak.

TUTULUX Izan ere. Zu, *lanper´nera*, atoz onera. (*Eskutik elduta eramango du aitonaren gana*). Aitona, ara zuretzat dantzako lagun polita.

AITON JOXEPE Eztet nik or´en biar´ik.

LANPER´NA SALTZAL´IA Ezta nik ere zureik... (*Tutulux´eri*). ¿Zer´ uste dezu zuk, agure zar´ pal or´entzat nagola´ ni?

KOIKE Emakumia, lanper´nak zure otar´ian egiten duten aña ur´te ditu or´ek, geyo ez.

LANPER´NA SALTZAL´IA

¡A la txanpaina zuaz!...

AITON JOXEPE Mikela, ator´; etzanela alde egin, ator´ Anjel ta nerekin bi itz egitera. Entzun itzin bi itz, entzun itzin.

Ta zu *galaya* etzazula nere bil´oba ezkutatu, utzi zayozu nigan etor´tzen, beraren bil´a bai-nator´ Donosti´tik, oñez ta.

BONI Alper´ik etor´i zera ba, orain eztizu entzungo.

AITON JOXEPE Entzungo dit bai. Mikela, badakin nola gelditu dan aita. Zer´ egunak dator´kigun pakia jar´tzen ezpaden etxian.

MIKELA Ni ez nijua ba orain.

AITON JOXEPE Bañan neska... (*Jar´aituko dute izketan.*)

KAR´LOTA ¿Egiñ al dezu?

KOIKE Bai, ta dotoria ara. *Erakutziko du izpar´ingi edo periodiko-paper´ batekin egin duben gixon bat; Kar´lotak or´atz batekin ipiñiko dio Aitonari bizkar´etik zintzilik.*

KAR´LOTA Nai ezpadu lanper´na saltzal´iarekin, onekin dantzatu biar´ko du ba. Ekatzu, or´atz batekin jar´iko diyot nik...

TUTULUX Jar´i, jar´i, bitar´tian musikuak bilduko ditut nik... ala, ala... etor´i danok onera:.. musika, musika...

ANJEL (*Kar´lota´k zer´ egin duen ikusi-ta emango diyo bultzaldi bat ta botako du Koipe´ren gañera*). ¿Zer´ ari aiz or´...?

KAR´LOTA ¡¡Ai!!

KOIKE ¡E! ¡astua!... neska bota duen itxuran.

BONI ¿Emakumiak jotzeko aña bai altzera?

ANJEL Eztet jo, bultz egiñ diyot aitona danen par´agar´i jar´i nai zibelako.

KAR´LOTA ¡Jo egin nau!

DANOK Jo egin du jo... zakar´a, astua... kobar´de ustela...

AITON JOXEPE ¿Zer´ egin dek?

ANJEL Ixiltzen ez padir´a puskatu bat-edoenbat aur´ena neska zir´tzil´ ori dala...

DANOK ¡E! ¡e!...

MUTIL ¿Ber´iro emen zera?... ¿ta er´iyer´tan?

BONI Biyotz gabeko gizon or´ek neska jo eztu ba.

ANJEL Zuk bezin aundiya badet... or´egatik galerazi nai niyon egin nai zubena.

DANOK Bota, bota emendik... ala... ala...

MUTIL´A Ala or´tikan, len ere esan dizut eztala au zuben lekua.

DANOK Ala, ala... ospa, ospa...

ANJEL Ia nor´k ikutzen nauen ni...
(*Boni´k ekar´iko ditu bi er´tzain “poliziyako”, edo bi mikelete*)

BONI Au da.

ER´TZAINA Atoz gurekin.

ANJEL ¿Ni?

ER´TZAINA Atoz, ta ixilik... bestela ainbat oker´o zuretzat.

DANOK ¡Ala, ala, alde emendik, zar´tzazute itzalian!

BONI Erakutzi zer´ dan emakumeak jotzia.

ANJEL Ez naiz juango.

ER´TZAINA Guazen ixilik...

AITON JOXEPE Ua, ua Anjel, obe dek ixilik alde egin, ni ere ire ondoren niak.
(*Juango da bien-er´dian ta geldituko dira danak iseka txistuka ta ojuka. Aitonak egingo du azkeneko alegiña, bere il´oba eramateko bañan ar´tuko dute danok er´diyan ta aur´en gisa asiko dira “a la kinkir´inera”*). Mikela... guazeman, guazeman elkar´ekin... guazeman.

TUTULUX ¡Musika! ¡musika!... ala, lanper´nera, eldu aguriari ... zu, aguretxua dantza emen.

AITON JOXEPE Laga nazute neri pakian... Mikela, ator´...

TUTULUX ¿Eztezu nai?... eldu danok eskutik... guazen *kor´uan*.

BONI Danok, danok, ... Mikela, zu ere bai.

MIKELA Ni ez.

BONI *(Zakar´). Zu, ta danok. (Musikak joko du “alakinkir´inera” ta ekingo diyote danak abestuaz ta jiraka-Aitona egongo da aur´ena begiyak besuakin estalita, ta gero ikusirik bere bil´oba ere soka dala, juango da bera gana. Mikela´k etengo du soka ta igas egingo du ezker´etara Aitona ondoren dubela).*

DANOK A la Kinkir´inera
a la zanbr´unera
aiton zar´ak bil´oba
eraman nai dubela...

AITON JOXEPE ¡Mikela ator´ onera...!

MIKELA ¡Ai! *(Elduko diyo besotik).*

AITON JOXEPE Onez nai ezpaden txar´ez. Zutik nai ezpaden ar´astaka, bañan biyok juango gaitun...; ator´ etxera, ator´ ... *(tiraka).*

BONI *(Albotik ixilka).* Nerekin, edo or´ekin betiko.

AITON JOXEPE Laga itzin leku abek, lagun abek... ta guazeman...

KAR´LOTA *(Bonik bezela ixilka).* Sotora, trezak beitatzero... etxera ar´ai zakar´ak jatera.. ankutzik sar´din saltzen ibiltzero... goziak egotera... ¡bizikera eder´a!

MIKELA *(Neke aundiz).* Utzi nazu, ez nijua...

AITON JOXEPE ¿Nik i emen utzi?... ez...

MIKELA Bai aitona utzi neri...

BONI Biar´ko. *(Elduko diyo bizkar´etik ta tirako diyo atzero Mikela´k aur´era egiten duben unean ber´tan. Azkatuko da or´duan aitona ta eror´iko da zer´aldo lur´era).*

MIKELA ¡Ai!

AITON JOXEPE Mikela, aitona bota den... lur´era bota den... ¡Deun Jose neria! bil´oba galdu zait... samintazun onek ilko nau... Anjel, Anjel... itxon, itxon... irekin jua nai diat... igasi... leku abetatik... *(Atzian ezkatzeakuan).* ¡Mikela... agur´...

Bigar´en egintzaren azkena

IRUGAR´EN EGINTZA

Eraz antolatutako gela bat. Iru ate. Atzekoa sar´erakoa, ezker´etakoa Mikela´ren gelarako, ta eskuitakoa etxe bar´urako. Atzean, eskui aldera, maitxo bat, exer´ lekuak...

LENBIZIKO IRUDIA

I

JOXEPATXO, gero BONI

- JOXEPATXO *(Ezker´etako atetik ir´tenik)*. Gaxua, bakar´-bakar´ik dago. Beti Boni´ren sai, ta Boni´rik ager´tzen etzayola bai dira iru egun, ¿ta zer´ egun? onenak, alayenak, gaztientzat eder´enak, iñauteriko egunak.
- BONI *(Biatza abuan dakala, ta anka puntetan)*. Joxepatxo...
- JOXEPATXO ¿Oi Boni, zu al zera?
- BONI Ixilik... ¿etxian al da Mikela?
- JOXEPATXO Oyian. Orain esan dit ber´iro zure bil´a juateko.
- BONI ¿Gaizki al dago?
- JOXEPATXO Gaizki, gaizki... badakizu.
- BONI Bai.
- JOXEPATXO Gaitzik aundiyena, zu ez ikustia du. Aur´enetan onera ekar´i zenduenian alkar´ekin ziñaten beti... Gero... lana ta, zer´ egin batzuegatik etziñan egunero etor´tzen; ta orain... iru egun badira etzerala ager´tu, ¿ta zer´ egunak! onenak...
- BONI Egiya da.
- JOXEPATXO Gaur´ko egun guztiya negar´ez darama, iñauteriko iru egunetan ere ala egon da. Gogoratzen zaizka juan dan ur´teko egunak, gurasoen etxia, zurekin onera etor´i zan gaba ta ikusirik oraingo bere bakar´tasuna iruditzen zayo zuk gutxiyago maite dezula, ta negar´ egiten du.
- BONI Ar´azoi du.
- JOXEPATXO Nik ixildu azitzen det. Esaten diyot eztiozula biderik eman or´ela jar´tzeko; beti beria izango zerala, bere onduan egonakin lanik eztakazula egiterik, gauza askori aur´e eman biar´ diyozulako: etor´iko zerala, ta onela... ¿ez al det ongi egiten?

BONI Ez.

JOXEPATXO ¿Zer´ ba? ¿Zer´ nai dezu esatia?

BONI Ez naizela geyo etor´iko.

JOXEPATXO ¡E...!

BONI Entzun dezuna. Bukatu egin biar´ det.

JOXEPATXO ¿Azper´tu al zaitu?

BONI Bai.

JOXEPATXO Mikelatxo gaxua, onaskoa daba...

BONI Onegiya, bestela aspaldi aztuta neukan... bañan orain azkendu biar´ det. Josepatxo ezkontzen naiz, ta onekin dakaten korapil´ua eten biar´ det.

JOXEPATXO ¡Ai, ai, ai...! ¡Beste baten kutiziya sor´tu zaizu...! Kar´nabaletako beste aixkide enbat.

BONI Ez, ez, egiyetan da oraingua.

JOXEPATXO Ala zan azkenekua ere.

BONI (Asar´e). Azkenekua edo oraingua, egiya dan zuri ezer´ eztizu. Mikela´rekin bukatzera noala jakitia naikua dezu, gela abek libr´e izango dituzula ere bai. Orain ar´te ondo or´daindu dizkitzut lan guztiyak; Mikela´gandik alde egiten, au bere gurasoengana, al bada, eramaten laguntzen banazu, obe izango da zuretzat... beztela, emanak eman, ar´tuak ar´tu, ta kito.. or´ konpon.

JOXEPATXO (Lar´j). Ez, ez, ez, Boni, badakizu zuk agindutakuak egiteko *pr´onto* nagola beti.

BONI Orain ar´te bai.

JOXEPATXO Orain ere... ala egin biar´ko.... Mikelatxo gaxua... maite nuben ba...; ain neska polita da... bañan...

BONI Ola konponduko gera. Orain kayera noa, bapore bat oraindik etzait etor´i, ta ikusi nai det ezer´ badakar´en. Gero etor´iko naiz, ta zuk bitar´tian, egokierik badezu, badakizu zer´ egin.

JOXEPATXO Ez da lan er´aza bañan... zer´ egingo da ba.

BONI Gero ar´te.

BIGAR´EN IRUDIA

II

LENGUAK eta MIKELA

- MIKELA *(Ir´tengo da etxeko jantzi batekin)*. Nola, Boni, ¿ni ikusi gabe zuaz?
- BONI Esan dit lotan zeundela ta etzindutan esnatu nai:
- MIKELA Aitzeki txikiya sor´tu dezu.
- BONI Beriala etor´iko nintzan.
- MIKELA Larunbatian ori bera esan zidazun. Atoz aur´era gizona... Joxepatxo, zuaz zu bar´ur´a... *(Joxepa jua)* exeri zaitia. *(Biyak exeri. Boni gogo txar´ez)*. Boni, eztakit zer´ar´kitzen detan zuga, etzaitut ikusten len bezela pozik, nerekin egon nairik.
- BONI *(Bizi ta zakar´)*. Ezin detanian, ezingo naiz etor´i.
- MIKELA *(Oso baretsu)*. Aldezunian ere ez. Alper´ik ukatuko nazu aspalditik bai nator´ esagutuaz, zure ni ganako oztasuna, ta egun abetako bakar´dadian gauza asko bururatu zaizkit eta asko ikasi det.
- BONI ¡Ba! Sendatzian danak aztuko zaizkitzu. ¿Nola nai zenduen gaxo zeundela zure bil´a etor´tzia?
- MIKELA ¿Ta ikustera ere ez? *(Begirada zor´otz bat egiñaz)*. Gaur´ur´te bete alkar´ganatu giñan ta asiera eman geniyon bizimodu oneri. Nola zureganatu ninduzun ondo dakizu. Gurasoen etxia galdu nuen, aiton gizajua Matuteneko ger´taera ikaragar´i ayekin gaxotu, ta iru egun bar´u il´zan, ni ikusi gabe, ar´en asko beragana juateko egin bazituen ere... ez bai ninduzun utzi...
- BONI Zaude ixilik ¡zer´tako ber´itu atsegiñ ez dana!
- MIKELA *(Bizi)*. Zuri gogorazitzeko. Neri etzaizkit aztutzen, zuri bai; ta egun oyekin batian nai dizkitzut gogoratu zuk neri agindu, eskañi ta opa zizkiatzun ontasun guztiyak. Ni dana zuria izango nintzan, zu guztiya neria, ta ni ezik nere gurasoak, senidiak, danak ondo jar´i biar´zenituen.
- BONI Nik ezingo nizun or´elako gauzik agindu, ¿Rotxil´ naizela uste al dezu?
- MIKELA Agintzen bai, ematen ez.
- BONI Ba, ba. Jar´dun au guztiya dirua eskatzeko izango da.

MIKELA (Bizi). Ez, diru bil´a ez nabil´, ta ezazu ez poztuko ta ez atsegabetuko emanakin ala ukatzeakin. Ez, nik zu nai zaitut, zure maitasuna, zure niganako gogua nai det. Boni, nik nai zaitut len ezagutu zindutan bezela, ta or´tarako naukazu ni emen oso-osorik zuretzat.

BONI Ni lengua naiz, betikua.

MIKELA Neretzako orain etzera lengua.

BONI Baita.

MIKELA Or´duan nik etzindutan ezagutzen.

BONI Baliteke.

MIKELA (Legor´ ta samin). Ar´azoi dezu... ala da. Itz egin zagun ba.

BONI Orain ez, gero. (Altxiaz).

MIKELA Orain ber´tan nai det.

BONI Orain ez. Kayera noa, itsaso izugar´iya dago, ekaitza badator´ ta oraindik bi bapore palta dira: neria, Kosme´k dabilkiyena, ta zure aitarena.

MIKELA ¿Nere aita ere bai?

BONI Bai, bañan onezkero ber´tan dira, beste guztiyak aspaldi sar´tu ziran ta.

MIKELA ¿Or´duan etor´iko zera?

BONI Bazkaltzera; ala beta geyago izango degu itz egiteko. Ekar´i zazu aldamentik biyontzat bazkariya.

MIKELA Ondo da.

BONI Gero ar´te, ekar´i bazkari goxua, ta jar´i zuk ar´pegi ar´giya.

MIKELA Ni ar´kituko nazu zeror´ek nai nazun bezela.

BONI Or´duan par´ez.

MIKELA Ez genduke egiz egingo. Gero ar´te. (Ir´ten Boni).

IRUGAR´EN IRUDIA

III

MIKELA ta JOXEPATXO

- MIKELA (Eskubitako gela erekiyaz). Joxepatxo, atoz.
- JOXEPATXO ¿Juan al da Boni?
- MIKELA Bai; ir´ten biar´ dezu. (Exeriko da mayian, idatziko du paper´ bat eta emanaz). Eraman zazu au aldameneko ostatura. Neroni juango nintzake bañan ez naiz ongi ar´kitzen.
- JOXEPATXO Ez, sinisten det. Egualdi abekin ez da gor´putza santu-santua egoten; ara neroni ere, ez nabil´ batere ondo.
- MIKELA Ez, ez, ezta egualdiyena.
- JOXEPATXO Ala uste nuben ba, ez litzake ar´itzekua izango, noiz otza, noiz berua, ego-aizia ta ipar´a bata bestiaren ondoren dabilta... Orain ere badakar´, badakar´ gogor´a, joko du, aizia asi da.
- MIKELA Ainbat oker´o.
- JOXEPATXO Dana dago orain txar´tua; eguldiyak ere eztira len bezelakoak, dana oker´tua-dago... ori da nik beti esaten detana A! gure gaste denboran, besterik zan; neguan otza, bai egiya, bañan udaran berua, ta ez orain bezela noiz nai, berua, noiz nai otza. Or´egatik or´enbeste jende gaxotzen da, ta zu ere bai... (Mikela´k buruaz ezetz) bai... bai...
- MIKELA Ezetz Joxepa.
- JOXEPATXO Begira zazu, nik ezagutu ditut ur´tiak, an mil´a ta...
- MIKELA Betikua, etzait ixilduko. Joxepatxo, eraman zazu ori ostatura ta gero juan biar´ dezu Elizara.
- JOXEPATXO ¿Elizara?
- MIKELA ¿Esagutzen al dezu Don Ramon apaiza?
- JOXEPATXO Noletan ez, asko...
- MIKELA ¿Bai, e?
- JOXEPATXO ¡Ui! besterik ez, er´itar´a da ta; ori da Motrikuar´a. Oren aita zan botikayua, ta ezkondu zan...
- MIKELA (Bizi). Bai, bere emastiarekin, badakit.
- JOXEPATXO Ez, alar´gun batekin, alar´gun ori zan...

MIKELA (Altxa ta Juanaz). (Erotuko nau ta neroni nua).

JOXEPATXO ¿Nora zuaz?

MIKELA Kalera.

JOXEPATXO Ez orixen, etzera ir´tengo or´egatik, ni juango naiz.

MIKELA Zuaz ba azkar´.

JOXEPATXO Bañan nola juango naiz ezpanazu esan zer´ esan biar´ diyotan.

MIKELA Ez nazulako utzi, gaste denborako gauzetara juan zera ta.

JOXEPATXO ¡Ain xamur´ak dira oroimen oyek! Ni, Mikela, zu bezela gastia izana naiz. ¡a! ura sasoya! Senar´ gayak inguruan par´a-par´a ibiltzen zizaizkitan.

MIKELA ¡Ber´iz!... Begira Joxepa zuaz beriala emendik zure gelara edo kalera, nai dezun lekura, bañan zuaz.

JOXEPATXO Apaizaren gana, ta ostatura... banua. (Ate onduan biur´tuaz). ¡A... bañan zer´ esan biar´ diyot apaizari!

MIKELA Etzi goizian zazpiyetan meza bat ateratzeko.

JOXEPATXO (Poliki, poliki, aur´eatuaz). Etzi, etzi... ¿zer´ da etzi?

MIKELA Ezer´ ez.

JOXEPATXO Etzi da.... ostirala... garizimako aur´eneko ostirala.. ta...

MIKELA Zuaz emakumia.

JOXEPATXO Da...

MIKELA Da, nere aitona ildako eguna.

JOXEPATXO ¡Izan ere! Burua arintzen ari zait. Neri ori gogoatu ez... Bai, etzi... etzi... ona, ¡gizarajua! Ura bai zala gizon elizkoya, zintzua... Nere senar´aren lagun aundiya zan. ¡A! ¡penak, penak il´ zuten gizarajua!

MIKELA Bai ta zure senar´a pozak.

JOXEPATXO Bai pozak, pozak.

MIKELA (Zure ondotik alde egiten zuelako).

JOXEPATXO Semia soldadutzatik libr´atu zan pozian egin genduen apari-merendu bat, ta gizarajua, par´ez zeola juan zitzayon oker´eko

estar´ira ezur´ bat ta ito egin zan... ¡gizarajua!... aitatzen detan bakoitzian negar´a etor´tzen zait... ¡nere Kelemente gizajua!

MIKELA ¿Zer´, orain negar´?

JOXEPATXO Gizon gutxi dira alakuak, nere Kelemente bezelakuak. ¡A! zurekin dabil´en Boni alakua izango balitz beste kukur´ukurik joko zenduke zuk ere.

MIKELA (Ber´itu nazu nere bar´en nekea).

JOXEPATXO Gaixtua, bañan txit gaixtua izango da neri burura sar´tu zaitena baldin badabilki... Ori ezta gizon biar´ bezelakuak egiten dubena... bañan ger´tatzen dira... ger´tatzen dira.

MIKELA (*Atsegabez*). Aski dezu, zuaz ixilik.

JOXEPATXO Banua, banua, bar´katu... nere Kelemente bezelakuak gutxi, ta au Boni... (*Tximista ta ondoren turmoya*) ¡Oi! ¿zer´tzan?... ¿tximista?... Aitaren ta semiaren.... bai... ara turmoya.

MIKELA Ekaitza, ta nere aita itsasuan ¿sar´tu ote da?

JOXEPATXO ¡Ai, ai!... Aiziak ori soñua, ta itsasuak ori or´ua. (*Entzungo da kristal puskatuen ots aundi bat*). ¡Ara; leyo enbat puzkatu da... ¿neria ote da? (*Juango da pizkor´ ezkubitako gelara*).

MIKELA Ezta gutxiyotako atera duen aiziarekin... beste tximista... gogor´a dator´, ikaratzen naiz...

JOXEPATXO (*Ber´iro sar´tuaz*). Ala're, ala're...

MIKELA ¿Etxekua al zan?

JOXEPATXO Inguruan, baño gure etxian ez. Eudiya asi baño lenago banijua azkar´-azkar´.

MIKELA Ber´iketa gutxi birian.

JOXEPATXO Eztet iñor´ topatuko.

MIKELA Bai, obe.

LAUGAR´EN IRUDIA

IV

MIKELA ta bar´endik Neska bat

MIKELA *(Leyotik begira)*. ¡Ori or´ua dauka itsasuak! ¡Ori soñua aiziak...
(Tximista). ¡Ai! uste nuen gañian zala. ¡Zer´ egun jar´tzen ari dan!
¿Ta nere aita etxeratu ote da? ¿Itsasuan ote dabil´ oraindik? ¡Jauna,
Jaungoiko aundiya! biar´ian ar´kitzen bada lagun egiyozu. Nere aita
da, ta bere gandik alde eginda egon ar´en badakizu maite detala.
*(Entzungo da turmoi soñu aundi bat ta gero ixil aldi batian
abestuko du eskal´etan neskatil´atxo batek aur´enengo egintzan
bezela)*.

NESKA BAT *(Bar´endik)*. No me izo mi madre
para casada...

MIKELA Gaur´ ur´tebete aitonaren aur´ian nik abestu nuen kanta ¡oroimen
txar´ekua! *(Otoiz egiñaz)* Ama laztana, zeruko Ama, itzuli egitatzatza
gugan zure begi er´ukitsu oyek,

NESKA *(Bar´endik)* Porque de solterita
no me falta nada...
(Jar´aitzen da abestuaz)

MIKELA ¡Neska gaxua! Asi dan lagunarekin oker´tu biar´ du, ¡A! ¡Lagun txar´
batek egiten duen kaltia! *(Eskal´etako atera jua ta ojuka)*.
Kandida, Kandida...

BOSTGAR´EN IRUDIA

V

MIKELA, PAKO, BONI

PAKO ¿Nori ots egiten diyozu?

MIKELA ¡Oi, zu! Orain atera duen aiziak bota al zaitu onera?

PAKO Aiziak ez, Boni´k bai, onek nakar´.

BONI Gurekin bazkaltzera dakar´t.

MIKELA Zer´tarako eztirazu lenago esan, birentzako bakarrik eskatu det.

BONI Josepatxo or´ ikusi degu ta esan diyogu iruentzat ekar´tzeko.

MIKELA ¡A! Poztutzen nazu Pako emen ikusiyakin, aspaldiyan etziñan etor´i.

PAKO Badakizu galerazten detan lekuan ez naizela ni ibiltzen.

MIKELA Zuk ezik or´ek ere aspaldiyan galerazi gutxi egin dezute.

PAKO Ori iretzat ukan.

BONI Ba.

MIKELA Zaudezte pixkabat, zer´bait jantzi ta emen naiz beriala.

PAKO Neregatik ez, ondo zaude or´ela.

BONI Zuaz, zuaz, bakar´ik egon biar´ degu. (*Mikela´k Boni´ri begirada samin ba, ta gero biur´tu ta ir´ten*).

SEIGAR´EN IRUDIA

VI

BONI ta PAKO

PAKO Boni ¿zer´ esan diyok? ¿Zer´ abil´ i gaur´? ¿Zer´ tara ator´ onera? ¿Zer´ tara nakar´ kit? ¿Zer´ egin biar´ diagu gaur´ emen? Burua puzkatu ar´en etziot tajurik ar´kitzen ik gaur´ egiten dekanari. Neska onen aita´ren baporía ar´oketara dator´ela esan ditek amabi gizon bar´enen ditula, ta ik laguntza eman biar´ian ukatu ta galazi egin diyok Kosme´ri baporiarekin gizon ayek salbatzera juatia. Kai guztiyan ikar´agar´izko jar´duna utzi dek ta ala ere onera ator´, bere alabarengana. ¿Zer´ tara? ¿Boni, zer´ tara?

BONI Etzakela or´enbeste galdera egin. Lagundu nazak, baño ixilik.

PAKO ¿Zer´ tan?

BONI Mikela´rekin asar´etzen.

PAKO ¿Zer´ diyok? I erotu egin aiz.

BONI Ez, entzun nazak. Badakik nola Anastasio etxegil´earen alabarekin nabil´en...?

PAKO Bai, ta etzekiat zer´ ar´kitu diyokan Dominga´ri, bañan ikusteat arekin.

BONI ¿Zer´? dirua. Pako, gaizki nebil´ek, gastu aundiya zekat, neskak, jokuak, zur´utak, asko eraman ziatek; irabaziyak beriz txikiyak ta batengatik ta bestiengatik txit erori nak ta ar´dipat gabe gelditzeko zoriyan niok. Or´egatik nebil´ek neska or´en atzetik, ta or´etxegatik ezkonduko nak.

PAKO Ta or´etarako galazten dik Mikela´k.

- BONI Asko, egun bat geyoan ezin jar´aitu nezakek berarekin. Anastasio´k bazekik ta esantziak traba ori auzi ar´tian eztula nai bere alabaren gana juaterik. Mikela´kikua gaur´ ber´tan egin biar´ diat. ¿Ikusten al dek orain zer´gatik ukatu detan baporia? Eman banuen Donosti gustiyak jakingo zikan ta nere aitagiya´eba-gayak etzikan sinistuko kupituta eman nuenik. Ukatu detala ere jakingo dik biyar´ er´i danak, gaizki itz egingo ditek, bañan nik nai ditutenak ikusiko ditek abekin bukatu detala betiko.
- PAKO Entzuteat, ta zenbat eta geyo entzun geyo ar´itzen nak ikusirik iri ondo dator´kikena egitear´en eztekala begiratzan zer´nai dol´or´keriri. Utsi nai dek kalia, ainbeste maite ukala esanaz bizi-modu txar´ian jar´i ukan neska; aiztiyan ukatu dek baporia, ta utsi dituk kai gañian negar´ez ainbeste andre ta... gizon, ta iri ondo dator´kikelako gauza egoki bat balitz bezela guztiya ar´kitzen dek. Boni eztek ik biyotzik edo eztek entzuten zer´ esaten dikan ire bar´enak.
- BONI Etzekiak bar´enak, bañan ik esaten nazkikan eder´ak aitzen dizkiat. Ez nikan uste.
- PAKO ¿Zer´ nai ukan ba?
- BONI ¿Zer´? Laguntzia. Pako, ar´azoi dek, Mikela txit ona dek, Anastasio´ren alabak baño askoz geyo baliyo dik, bañan nik dirua biar´ diat. Mikela on utza dek, ona dalako etzekiat nola utzi, lotsage bat izan bazan aspaldi aztuta niokan. Esan dek, gauza egoki bat balitz bezela ar´kitzen detala guztiya; eztiat egoki ar´kitzen nik gaur´ kayian egin detana, bañan zer´ nai dek? pozak niok egokiera ori gaur´ ager´tu zaidalako. Jakiten dubenian, txit asar´etuko dek, ta nor´k zekik aitaren etxera ez ote dan juango?... ori, naiko nitek.
- PAKO ¡Or´ konpon Boni! Egintzak nai dekana, ni baniak.
- BONI Bazkaldu zak emen.
- PAKO Ez. Eztiat Mikela´ren aur´ian egon nai, eztiat negar´ez ikusi nai, bere alde aterako nak ta oker´ago izango dek.
- BONI Egintzak nai dekana.
- PAKO Juan. (*Ir´ten*).

ZAZPIGAR´EN IRUDIA

VII

BONI, gero JOXEPATXO.- Bar´endik Andre bat

*(Eseri. Zigar´o bat atera ta piztu. Dana txit astiro
Eskal´etan zarata aundiya)*

- BONI ¿Zer´ oju dira oyek? *(Atzeko atera juanaz)*. Joxepatxo da mar´uaz...
geyo ere ba-dira... ¿Zer´ diyote?
- ANDRE BAT *(Bar´endik)*. Baporía, baporía ukatu tiril´as alu or´ek.
- BONI *(Aur´eatuaz par´ ir´iyan)*. Estakit ayek itsasuan, bañan ni legor´ian
gaizki ibil´i biar´a naiz. ¡Ba! ¡Emakumien ber´iketak! ¡Legor´eko
ekaitzak! Zarata aundiyakin etor´i ar´en ez diate ikarik ematen.
Bul´a puskabat... ¡Turmoya! Bi edo iru itz zor´otz... ¡Tximistak!
Malko batzubek... ¡Eudi pixkabat. Ta ondoren eguzkiya bere ur´ezko
pr´intz eder´akin.
- JOXEPATXO *(Atetik ojuka)*. Boni, Boni.
- BONI ¿Zer´ biar´ ote du sor´giñ onek?
- JOXEPATXO Kosme´k zure baporeko patroyak, bialtzen nau. Badakizu Kosme nere
il´oba dala.
- BONI Ez, ta ezta jakin nai ere.
- JOXEPATXO Kosme da ba nere il´oba, nere senar´aren anayaren alabarekin
ezkondua dalako, ta nik ar´i ezinezayoke ezer´ ukatu.
- BONI Zuaz or´ bar´ena ta utzi nazu pakian.
- JOXEPATXO Ez, ez... zuk eztakizu zer´ egin dezun. ¡Baporía ukatu! ¿Bañan bai al
dakizu zer´ jar´dun ta ber´iketa jar´i dituzun kayian? ¡Ilko zaituzte
gizona!
- BONI Zuaz or´ tik ixilik.
- JOXEPATXO Ez, ez, ez... ni neoni ere iya jo ninduten ikusi nautenian, ez, ez, ez,
Boni, eztakizu zer´ egin dezun ez, ez, ez.
- BONI Bañan ber´itsua.
- JOXEPATXO Ez, ez, ez ezta ori egiten ez, ez... neri ez agindu juateko, alper´ik dezu,
alper´ik, ta nik Mikela´ri esan biar´ diyot.
- BONI ¿Zer´, zer´ esan dezu?
- JOXEPATXO Mikela´ri esan biar´, diyotala. *(Mikela´ren gelara junaz Boni´k
besotik elduaz)*.
- BONI Zuk...

JOXEPATXO Mikela, Mikela.

BONI ¡A zor´giña!

ZOR´TZIGAR´EN IRUDIA

VIII

BONI, JOXEPATXO, MIKELA

MIKELA (*Bere gelatik ir´tenaz*). ¿Zer´ da emen?

JOXEPATXO Mikela, zure aitaren baporía iya galduan, zure aita ta amabi gizon iya ituan, or´ gaztelu atzian, lema galduta edo makina ausita, eztakit; bañan aizepian ta olatu tar´tian iya galdu dira.

MIKELA Zer´ diyozu Joxepa.

JOXEPATXO Egiya...

MIKELA (*Boni´ri*). ¿Juan al dira laguntzera?

BONI Bai.

JOXEPATXO Ez, ez, gezur´a diyozu. Bapore bat bakar´a dago piztuba, aiztiyan sar´tu dalako, Kosme´k dabilkiyena, ta or´ek eztiyo ateratzen utzi nai. Patroitzatik bota egingo duela esan diyo juaten bada.

MIKELA ¿Zer´gatik Boni?

BONI Ar´ixku aundiya dalako, ta agiyan biyak galduko diralako.

MIKELA ¿Agiyan ger´tatu liteken batekin ukatzen dezu laguntza?

JOXEPATXO Kosme´k nai du, ar´antzale guztiyak ere bai, izugar´izko marmaisua dago kai danian, onen baimenaren sai daudez danok, ta onek ezetz, ta ezetz.

MIKELA Zuaz Joxepa, ta esan dijuazela.

BONI (*Gogor´*). Eztijuazela esandet nik, ta eztira juango.

MIKELA ¡Nola, Boni, neronen aita´ri ori ukatu? ¿Ta zu zera orain ur´te bete ainbeste ontasun eskañi zizkiatzun gizona?

BONI Ta eman ere egin dizut makiñabat.

MIKELA ¿Zuk neri? ¿Zer´?... Galdu det zure gatik gurasoen etxia, nere gar´bitasuna, lotsak iltzuen nere aitona... Oyek al dira zor´ dizkitzuten, ontasunak?

BONI Ez, oyek ez.

MIKELA ¿Agiyan lau paret aben tar´tian gor´de ta edukitzia zor´ dizut nik zuri? Ori bada eztizut geyo zor´ko, ondo kosta zaizkit emen igarotako egunak, naiz zuk uste ez.

BONI Neregatik egin zenezake nai dezuna.

MIKELA Zeor´ek nai dezuna esan zazu, ir´ten, ori nai dezu, aspaldiyan or´en bil´a zabilta, ori egitearengatik gaur´ ukatu diyozu nere gurasoari laguntza. Zurekin luzaro itz egin nai nuen, zuri egiyak esan nai nizkitzun, lotsa, baldin badezu ar´pegi er´tzera, atera nai nizun, bañan ez, orain ez, eztizut ezer´ esango, ar´en egiñ baizik. Boni, ir´tengo naiz nunbaitera, nora nai, ur´uti... utziko zaitut bakar´ik, bañan aur´ena, Boni, salbazazu nere aita. Nere aita da, ta lar´i dago, nere aita da, ta gaizki dabil´.

BONI Ezin nezake.

MIKELA ¿Nor´k galerazten dizu? ¿Ixildu egiten zera? Nor´bait da. Zuk bar´en txar´a izanagatik ez dezu or´en dol´or´a; nor´bait da, ta nor´bait ori... emakume enbat. (*Boni´k bizkar´a altxa ta ixo*). ¿Ixildu egiten zera bigar´en aldiyan? Egia bai da. Utzi egin nai nazu beste bat gatik ta aitzeki bil´a zabilta. Utzi, laga, baster´tu, loipetuta gero kale gor´iyan jar´i... ¿Zer´taiz zu zuri? ¿Zer´ galdu dezu zuk?... (*Asar´ean iguaz*). ¡A! ¿Ta uste dezu ni or´taratuko naizela geyo gabe? ¿Uste dezu nik, or´ kalia, pakian utzi zinduztekela juaten alkar´tuta zu ta beste emakume ori, agiyan par´ez nere er´uak aotetan ar´tuta...? Ez... ez... esku abek, ur´te osoan geldik daudezen esku abek; pizkor´ lan egingo dute zeon ar´pegiyetan (*bat-bateko aldakor´a*) bañan ¡zer´ diyot! ¡Burua galdu det! Aitaz aztutzen naiz nere samintasunak gogoatuaz.

JOXEPATXO Bai, Mikela aitazaz gogoratu.

MIKELA Boni, azkar´a zera, zure bil´aukeriyetan. Botatzen nazu ta nai dezu ir´tetia ez madarikatuaz zu esagututako eguna baizik esker´ak emanaz. Baporía ir´teteko baimena eman nazu, neroni juango naiz esatera... ta... ez naiz geyo biur´tuko.

BONI Ez.

MIKELA Nola ez?

JOXEPATXO Jendia gora dator´, zaudezte ixilik. Boni, zuaz emendik Kosme´ri baporía ematera.

BONI Zuaz zu, sor´giñ ori deabr´uakin sukaldera.

BEDERATZIGAR´EN IRUDIA

IX

BONI, MIKELA, ANJEL

ANJEL Azkar´, azkar´, or´txen Monpas gañian dago baporía, fondo bota dute bañan alper´ik izango da. Aiziak eta itsasuak badakar´ ar´oketara.

MIKELA (*Belaunikatuaz*). Boni, ar´en egiten dizu, neronen aita galtzen ez utzi.

BONI Alper´ik zabiltzate, eztizutet emango, jua beste batekin.

ANJEL Ezpadago pizturik.

BONI Nería eztezute ba eramango, ta esan diyot Kosme´ri iñor´ nere baporekorik juaten bada biyar´tik kanpua da.

ANJEL ¡Gizon petrala! Uste dezu onela uzten dirala galtzen amabi gizon.

BONI ¡Ba!

ANJEL ¡Ba! ¿Amabi gizonen biziya? ¿Ta zu zera emakume zir´tzil´ ta txar´ bateri bultz aldi bat egin niyolako gizon biyotz gabekotzaz jar´i ninduzuna? ¿Zu, kupitzen etzerana amabi gizonen eriyuakin ta baten alaba oñetan erorita ar´en egiñaz ikusita?

BONI Esan zazu nai dezuna.

MIKELA (*Altxa*). Anjel, ez galdu denborarik onekin, zuazte nere aitari laguntzera al dezuten bezela.

ANJEL Txalupa batian besterik ezpada; lagunak baditut. Itoko banaiz ere juango naiz gizon ayetara ta gutxi nezake nik gaur´ekar´tzen ezpaditut.

MIKELA Jaungoikuak lagunduko dizu.

ANJEL Berak ar´gi egin dizula zeor´i ere gizon onen ondotik alde egiteko.

MIKELA Zuaz Anjel... ta esan nere aitari garai lar´i abetan ezdetala aztu, berakin nagola.

ANJEL ¡Gajua!

AMAR´GAR´EN IRUDIA

X

BONI ta MIKELA

Mikela eseriko da. Botako du mai gañera burua ta ekingo dio negar´ari. Boni´k, itz egiten duen bitar´tean, piztuko du zigar´o bat. Entzungo da ber´iro ekaitzaren zarata gogor´a.

BONI

¡Ekaitza!... beti ber´diña. Turmoyak eta tximistak... gero... (*Mikela´ri begiratuaz*) eudiya... (*alaituaz*) ¡Bigar´ eguzkiya! ¡Noan Dominga ikustera!

(Boni juandakoan altxako da Mikela. Soro begiak dakaizki. Gogai batek lotu du. Bekokia goi, begi ta ao zabal, ta zotin etenaz erakusten du bar´uan dabilkien eztabaita ikaragar´ia... Erabaki du. Ar´tu du asmoa, sendoa; ta ezpañetan ager´tu zaion ir´ipar´ eme batek ar´gitu dio, labur´, ar´pegia. Aterako du lepoan daraman kate ur´eskoa, ta beatzetako bi edo iru erastun ta botako ditu mai gañera. Tximista, ta ondoren ikaragar´izko turmoi bat entzuten da. Burura eraman ditu bi eskuak ta aitari ots egiñaz ir´teten da)

MIKELA

¡Aita! ¡Aita!... (*Oiala pizkor´*).

AMAYA